

**GUaiXE**

**FO**

**FO**

**FO**

# ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860

MARTXOAN  
%5 EKO  
DESKONTUA



**Narrea Bereciartu**  
Nahiz eta dagoeneko 10 urte egin, beti etxeko-koen partetik izango zara etxeko sorgintxo!! Muxu asko.

**Lexuri Lazkoz Ruiz**  
Ostegunean beteko ditugu etxeko printzesak 7 urte, ZORIONAK bihotza!! Egun ona pasa eta muxu pila bat familia guztiaren partez.



**Ane ZORIONAK**  
Ane! Gure printzesak bi urte betetzen ditu! Muxu asko aita, ama eta Mirenen partez!!

**Ane ZORIONAK**  
printzesa!! Mila muxu aitona-amonen partez.



**Bazkideek deskontua**

**Bakarra:**

**3,50€**

**Bikoitza:**

**7€**

**Onintza**  
Daunekos amiñduik! Egun ona pasa eta presta zazu txokolatie goxuat. Altsasuti besarkadat.

marsuak

13-19

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

**19.korrika kulturala**

**Korrika aurkezpena.** Martxoaren 15ean, igandean, 12:30ean Arbizun.

**Guaixe.eus komunitateko kide nola egin.** Martxoaren 16an, astelehenean, 18:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

**Guaixe.eus komunitateko kide nola egin.** Martxoaren 16an, astelehenean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur guneko balioaintzeko gelan.

**Euskarahaldun dokumentala.** Martxoaren 18an, asteazkenean, 19:00etan Etxarri Aranazko Karriestu elkartearen.

**Arbizu-Murchante eguna.** Martxoaren 19an, ostegunean, 10:30etik aurrera Murchanten.

## Musika

**Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdia.** Martxoaren 14an, larunbatean, 18:30ean Lakuntzako kultur etxean.

**El sonido de la metralla, Odio eta Arkada.** Martxoaren 14an, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.

**Frenetik.** Martxoaren 19an, ostegunean, 23:00etan Altsasuko gaztetxean.

## Antzerkia

**La pachanga de los amigos.** Martxoaren 13an, ostiralean, 20:00etan eta 22:30ean, martxoaren 14an, larunbatean, 20:00etan eta martxoaren 15ean, igandean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean. Irurtzungo antzerki tailerra.



**Odio, larunbatean, 23:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean.**

**Antzerki gau-jai.** Martxoaren 14an, larunbatean, 20:00etan eta 20:45ean Ihabarko kontzeju-etxean. **Arakilgo antzerki taldea.**

**A vueltas con la vida.** Martxoaren 14an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**La increíble historia de un huevo.** Martxoaren 15ean, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **La ratonera teatro.**

## Ipuin kontalaria

**Ate magikoa.** Martxoaren 13an, ostiralean, 18:30ean Ziordiko liburutegian. **Sara Pinto.**

## Dokumentalak

**Jostunak.** Martxoaren 18an, asteazkenean, 19:30ean Irurtzungo kultur etxean.

## Mendi irteerak

**Eltxumendi.** Martxoaren 15ean, igandean, goizean. **Iratxo mendi taldea.**

## Bizikleta irteerak

**Altsasu-Dulantzi.** Martxoaren 14an, larunbatean, 10:00etan Altsasuko kultur guneko paretik. 74 km. Zikloturista taldea.

**Hirumuga.** Martxoaren 15ean, domekan, 8:30ean Altsasuko

Zumalakarregi plazatik. 43 km. **Burunda txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

## Erakusketak

**Hiri paisaia.** Martxoaren 10etik 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Gardena taldea.**

## Hitzaldiak

**Zuhaizten, bizitzaren garapenerako gune autodidaktaren aurkezpena.** Martxoaren 14an, larunbatean, 11:30ean Altsasuko Basoko Mari dendan.

## Literatura

**Sobre lectura y escritura.** Martxoaren 16an, astelehenean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Hizlaria: Jesus Ballaz Zabalza, idazlea eta editorea.**

## Tailerrak

**Komunikazio ez sexista.** Martxoaren 17an eta 18an, asteartean eta asteazkenean, 18:00etatik 20:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Aurretik izena eman.**

**Bioaniztasuna, turismoa eta inguruko gizartea eta ekonomia garatzeko beste proiektuak.** Martxoaren 18an, asteazkenean, 18:00etatik 20:00etara Etxarri

Aranazko udaletxean. **Etxarriko mendi plana berritzeko prozesua.**

## Bestelakoak

**Sukaldaritza lehiaketa.** Martxoaren 14an, larunbatean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Gaztainondoak sartzera.** Martxoaren 15ean, domekan, 9:30ean Bakaikuko elkartearen. Gaztainondoan lan taldea.

## Deialdiak

**Altsasu 2020 amestu. Gure ezagutza eta gozama.** Martxoaren 13an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea Eraikinean. **EHBildu.**

**Arakil berrian hari gara.** Martxoaren 13an, ostiralean, 19:30ean Ihabarko kontzeju-etxean. **EHBildu.**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Martxoaren 13an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Sakanako Libre Eguna.** Martxoaren 14an, larunbatean, egun osoan Etxarri Aranazten.

**Altsasu 2020 amestu. Gure bitzite ona.** Martxoaren 14an, larunbatean, 10:30ean Altsasuko Gure Etxea Eraikinean. **EHBildu.**

**Arakil berrian hari gara.** Martxoaren 14an, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko kontzeju-etxean. **EHBildu.**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Martxoaren 15ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzeak.

**Udal programa eta hauteskunde zerrenda.** Martxoaren 17an, asteartean, 19:30ean Arakilgo udaletxean. **Arakilgo Independentek.**

**Sakanako turismo eragileen bilera.** Martxoaren 18an, asteazkenean, 12:00etan Izurdiagako Brun forjan. **Bidelagun elkarte.**

**Ostiralero SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

**beleixe** **online**  
www.guaixe.eus

*Piztu irratia!*

## ASTEBURUKO AGENDA

### ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,

Bisila elkarte, Sakanako Euskaraz Bizi Eguna, Gose taldeko Jon Zubiaga, Jose Luis Garmendia, Martxoak 8, Frenetik taldeko Xabier Seco...

*Esataria: Alfredo*

SAKANA

## Kaixo familia!

**Gezurra dirudien arren, hemen gaituzue 500 Guaixe astekariaren beste hainbeste ateratzeko apustua mahaigaineratzen! Beste 500 baietz!!**

Egunerokotasunean murgilduta ibiltzeak hauxe dakar, egun batean, geratu egiten zara, bista atzera botatzen duzu eta pasatako urtean atzera begirako bidaia egiterakoan barrenak astindu egiten zaizkizula, eta nola ez hasperen

batek ihes egiten dizu... 20 urte pasa dira!

Zenbatoroitzapen, beldur, ilusio, artikulu, amets, liburu, apustu, ekintza, argazki, autobus bidaia, kultur programazio, kronika, elkarrikeria, elkarretaratze, prentsa ohar... zenbatsentimendugazi-gozo, garai on eta ez horren onak, afari eta ospakizun, anekdota eta abentura. Idazmakinatik ordenagailu-

ra pasa gara, argazkiak errebelatzen digutela, kupidarik gabeko kliskatzen jarodugu, tdk zintak erabiltzen, mp3-ra.

BIERRIK Kultur Elkarteak, 1994an familia sortu zuen, Guaixe, paperezko seme ipurtarina jaiotzen eta bost urte beranduago, Beleixe ahots ozeneko alaba bihurtu. Egun, gaztetxo diren honetan, urte bat bete berri duen arreba txikia dute: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus). Txikia, gogor dator, indartsu. Bere bi aurrekarien trikimailuak ondo ikasita dituela nabaria da eta luze-

rako gerra emango digula ziurtatzen dizuegu!! KOMUNITATEA du bidelagun eta kide bila dabil, datorren astelehenean duzue elkar ezagutzeko aukera: Etxarri eta Altsasun arratsaldeko 18:00etan, animatzen?

Azpirarratu nahi ditugu 2012an familia berriz handitu zuten 1.500 senitaratekoak, zuek, bai, bazkideak!! Laguntzaile isilak, fidelak, gure babesle maitakorrak. Eskerrak ematen dizkizuegu bihotzaren erdi-erditik. Banatzaile, zuzentzaile, kolaboratzaile,

itzultzaile, familia benetan ugaria, ibilbide luze honetan zuen guztion laguntza ezinbestekoa izan da indar berriturik aurrera ateratzeko, gogor eta osasuntsu, kritikoa eta euskaldun.

20 urtetan gauza asko pasa dira eta guzti horren lekuko izangaren elean, guztiak zuekin konpartitu nahi izan ditugu beti. Euskarazko komunikabide izan gara, gara, eta izango gara!! Etorriko dena datorrela, argi gabiltza, edo zertarako gertu, alai eta gogotsu beste 500-i beldurrik ez!!!



>> Altsasu / Etxarri Aranatz

## www.guaixe.eus komunitateko kide egin nahi duzu?

**Astelehenean Komunitateko kide egiteko saioak egingo dira Etxarri Aranatz eta Altsasun, 18:00etan**

2013ko abenduan berritu genuen Guaixe web orria. [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) web gunean sartzeko denak Sakanari buruzko mota guztiko informazio eguneratua topa dezake bertan, euskaraz, jakina. Horretaz aparte, gure web orriak Komunitatea dauka. Komunitateko kide egiten diren guztiak

bere txokoa dute eurek egoki jotzen dituzten albisteak, kontuak, argazkiak edo dena delakoak gure orrian zintzilikatzeko. Guaixek bere Komunitatea zabaldu nahi du, hala nahi duten sakandarrek bere mezuak lau haizetara zabal ditzaten.

Komunitateko kide egiteko prozesua erraza da, baina bidea are gehiago errazteko bide hori azaltzeko saio praktikoak anto-



latu ditu Bierrik fundazioak. Altsasuko eta Etxarri Aranatzko saioak martxoaren 16an, astelehenean izanen dira, 18:00etan. Altsasuko saioa Iortia Kultur Guneko balioanitzeko gelan izanen da eta Etxarri Aranatzko kultur etxean. Jakina, gure Komunitateko kide izan nahi duzuen guztiok gonbidatuta zaudete eta bertan kide egiteko aukera izanen duzue.

>> Lakuntza

## Euskaraz bizitzeko aldarria

**Sakanako Euskaraz Bizi Egun Txikia Lakuntzan ospatu dute aurten, baina nazio mailakoa Otxandion izanen da apirilaren 18an**

Larrait Lazkano

Larunbatean ospatu zen Euskaraz Bizi Egun txikia. Euskal Herrian Euskaraz-ek Sakanan antolatutako eguna izan zen eta eguraldi bikaina lagun, beste herrietako jendea gerturatu zen Lakuntzara.

12:30ean egin zuten egunaren aurrezpena herriko plazan, erraldoi eta buruhandien konpainiaz gozatzeko aukera izan zen ere aldi berean. Horretaz aparte, auzatea eskaini zuten Euskal Herrian Euskaraz-eko kideek, eta eguerdi aldera herri-bazkaria izan zen.

Arratsaldean aldiz, mus txapelketa finala ospatu zen, hain-

bat astetan ostiralero-ostiralero jokoan aritu ondoren, Joxe Ramon Lopetegi eta Joxe Flores garaile izan ziren. Beranduago musikari tartea utzi zioten, fanfarrea kalez kale herriko gazteen eskutik, eta Lakuntzako musikari ezberdinek euskararekin betiere erlazio zuzena duten doinuak abestuz.



Auzatearekin abiatu zen festa.



# Loti ederra

Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea

astekoa

Txikitan irakurri ditugun eta gure umeei kontatu dizkiegun ipuinen artean Grimm anaien eta Perraulten ipuinen bertsiot dago: Loti ederrarena. Hau ekarri dit gogora pasa den asteko Xabier Reparaz idatziak. Sakanako soro asko lozorroan dago, egia da. Zorionez batzuk espeku-

laziotik libratu dira eta larre jarraitzen dute, oraindik balioetsuak direla pentsatzen duen jendea badagoelako. Denboraldi batez, lurra, eraikitze oinarri bat bezala ulertu eta baloratu izan da soilik. Azken hamarkada honetan mundu osoko inbertsio funtsak landa-lurra erosi

dute Afrikan eta Asian bereziki (bertako nekazariak botaz, baina hau beste baterako utziko dugu). Milioika metro koadro, beste dimentsio batzuk, baina landa-lurra. Lurra mugatua dago, ezin da ekoiztu, eta behar beharrezkoa dugu kalitate pixka batekin bizi ahal izateko.

Larre politik daude baita gure soroak ere, baina, Xabierrek esaten duen bezala, agian ikusiko ditugu berriro herri osoak elikatzen. Loti ederra esnatuko duten printze eta printzesak behar ditugu horretarako. Formula berriak, gizaldi honetara egokitu daitezkeen lankidetzak egitura berriak. Soro

horien jabeak ezin dituzte askotan beraiek landatu, adinagatik, denbora faltagatik. Baina egongo da gazte jendea gogo eta indarrarekin. Bururatuko zaigu moduren bat lurra eta lanerako indarra bateratzeko? Kalitatezko elikadura berreskuratzeko eta langabezia murrizteko bideetako bat genuke.

## barrutik kanpora

### Zenbat balio duen jakitea

Kontsumitzaile gisa zerbaitetan interesa dugunean, lehenengo galdera "zenbat balio du?" izaten da. Kontsumitzailei buruzko legeak praktika komertzialetan ezartzen du "prezio osoari buruzko" informatzeko betebeharrak eta 3423/2000 Errege Dekretuak, prezioen adierazpenari buruzkoa

bereziki, ezartzen du prezioa erraz identifikatu eta irakurtzeko, eta ezin nahasteko modukoa izan behar duela, baita informazio hori kontsumitzaileak ikusteko modukoa izan behar duela, hori eskatu beharrik izan gabe. Zenbait arlotan araudi berriazkoak daude, adibidez ibilgai-

luak konpontzeko tailerretan. Nafarroan, 123/1997 Foru Dekretuak tailer hauek behartzen ditu jendaurrean kartel bat jartzera "modu ikusgarrian" non adierazi beharko diren lan ordu bakoitzeko tarifak eta zerbitzu jakinetako prezioak. Gainera, erabiltzaile guztiek eskubidea dute idatzizko aurrekontua jasotzeko, zeinean egin beharreko konponenten prezioa azaltzen den.

Herritarrek haien ondoeza azaltzen dute kafetegi eta jatetxetan kobratzen zaien prezioengatik.

Eskaintzen diren janari eta edarien zerrenda eta hauen prezioak "ahalik eta publizitate handiena izan du eta toki nabarmen batean agertu beharko du, aise ikusi eta irakurtzeko moduan", betiere, establezimenduaren kanpoan eta barrenean.

Nafarroan merkataritza arautzen duen legeak ezartzen du merkatariek salgaien ondoan publiko-arentzako salmenta-prezioak erakutsi beharko dituztela, hala nola eginiko eragiketaren faktura, ordainagiria edo frogagiriren bat

emanen dute, non eta kontsumitzaileak ez dionespresuki hori jasotzeari uko egiten.

Etxebizitza babestuen sustatzaileek erosleei prezio osoaren informazioa eman beharko diete eta prezio honek jasotzen dituen kontzeptuak, eta azaldu behar dute prezioan barne tasak, zergak eta erosleak izango dituen bestelako gastuak sartzen diren.

#### Iratxe Kontsumitzaile elkarte

## hara zer dien

### Alzheimerrari aurrea hartu dakioke?

Alzheimerra zerk eragiten duen ez dakigu zehazki. Bai ordea, Alzheimerraren garapenean faktore asko agertzen direla: adina, familia aurrekariak, eritasunak, bizimodua... Ezin ditugu denak tratatu; bai, ordea, haiei aurrea hartu, neurri batean.

Bi arrisku faktore funtsezkoenak adina eta familia aurrekariak dira. 65 urtetik gorakoek %10eko arriskua dute; 85 urtetik gorakoek, berriz, %50ekoa ia-ia. Gurasoek edo aitona-amonek demenzia izan badute arriskua handiago da. Hala ere, kasuen %1ean hartzen da herentziatzko gaixotasun bezala. Genetikak gazteengan du eragina. Beste kasuetan, faktore bat gehiago dugu.

Neurri hauek hartuta Alzheimerra atzeratu edo saihestuko dugu:

- Gutxi eta ongi jan. Dieta aberatsa izan: arraina, barazkiak, fruta eta gantz begetalak (olibabola).

- Alkohol gutxi edan.
- Saihestu tabakoa eta beste toxikoak (pestizidak, ongarri toxikoak...).
- Gorputz ariketa maiz egin.
- Ez egon bakarrik luzaro: jo elkarte edo taldeetara, bilatu lagun eta adiskideak, ongi pasa.
- Segi ikasten eta irakurtzen. Zenbat eta ikasiago izan, demenzia gutxiago agertzen da.
- Inguruan zer gertatzen den ikasi.

• Aisialdian jarduerak egin.  
• Kasu egin zure osasun fisikoari eta psikologikoari (depresioa ere arrisku faktore bat da).  
Gure artean zabaldua dago uste oker bat: zahartzarora eta Alzheimerra estuki lotuta daudela eta ezin dela deus haiek galarazteko. Borroka gaitzen uste horren aurka!

Josefina Arregui

## gutunak

### Mozal Legearen gaintetik, kazetaritza ez da delitua

Alfredo Alvaro, Maider Betelu eta Amaia Amilibia

Euskaldunon Egunkariaren aurkako epaiketa bidegabea bertan behera geratu izana ospatu genuen iaz Euskal Herriko gizartearen eta komunikabideen gehiengoak. Baina 2014 amaitu aurretik, gure lanbidearen jardun askea baldintzatzen duen beste kasu batek asaldatu gintuen, eta beste behin, adierazpen askatasunaren alde agertu beharrean gaude. Topatu.info hedabidearen aurkako bidegabekeria eta ildo errepresiboan sakontzera datorren Espainiako Gobernuaren Mozal Legea (gaztelaniaz Ley Mordaza) salatu nahi ditugu.

Legeak kazetarion lanari zuzenki eragingo dio, eta hori ezin dugu onartu. Manifestarien aurkako polizia gehiegizko indarraren erabileraren berri ematea,

etxe-gabetzeen zuzeneko kontaktuzuna egitea eta kolegiatu gabeko kazetaritza herritarra delitu bilakatu nahi ditu Mozal Legeak, besteak beste. Arrazoi hauengatik Nazioarteko Zuzenbideak giza eskubide gisa onartutako informatzeko askatasuna murriztuko duela salatu nahi dugu.

PPren gehiengoari esker Espainiako Kongresuan onartu dute Herritarren Seguratasunerako Legea eta Senatuaren onarpena besterik ez du behar indarrean jartzeko. Halere, Euskal Herri honetzako badugu Mozal Legeari darion ikuspegi murriztaile eta zigortzailearen lehen kaltetua: Topatu.info-ko Iraitz Salegi kazetaria.

2013ko martxoan Ernai gazte antolakundeak Urduñan antolatu zuen Gazte Danbadaren ekitaldi politikoa 7.000 lagun elkartu ziren. Ekitaldi publikoa eta irekia izan bazen ere, horren berri emateagatik inputatu dute Topatu.info hedabide digitaleko kazetari Iraitz Salegi. Euskal Herriko eta Espainiako komunikabide askok eman zuten Urduñako ekitaldiaren berri, baina gure harridurarako, Topatu.info izan da zigortzeko bidean jarri duten hedabide bakarra. Ez dugu ulertzen kazetari bat zigortu nahi

izatea zergatik eta bere lana egiteagatik. Terrorismoa goratu izanaz akusatuta Iraitz Salegi kazetariarentzat urte eta erdiko kartzela zigorra eskatu du fiskalak, eta maiatza aldean (data zehaztu gabe dago) epaituko dute terrorismo kasuentzat espresuki sortutako Espainiako Auzitegi Nasionalean.

Beste hainbat gauzaren artean, gure inguruko ekimen, ekitaldi, istilu, gertakari edo manifestazioen berri ematea kazetari egitekoa da, eta gure lan publikoa egitea ezin da inolaz ere delitu bilakatu. Mezularia zigortu nahi dute.

Aurrera begira kazetarion lana baldintzatzeko saiakera izan daitekeela uste dugu. Ez gaude prest legearen izenean informazio askatasuna nola desfiguratzeko duten kontatzeko. Ez dugu albiste hori eman nahi. Topatu.info-ren aurkako epaiketak gure lanbidea arazo bilakatu nahi du eta guk, kazetariok, gizartearen arazoei irtenbidea bilatzen laguntzeko tresna izan nahi dugu.

Kazetaritza demokraziaren bermeetako bat izanik, askea izango da edo ez da kazetaritzarik, ez demokraziarik izango.

Kazetariok ez gara delitu!

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.net  
**MAKETATZAILEA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net  
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano  
**ZUZENTZAILEA:** Patxi Flores  
**ARGITARATZAILEA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILEA:** Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.net  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK** 

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hezkuntza Politikako Salburordetza

**BAKE EPAILE BILA:** Irañetako Udalak bake epailearen eta haren ordezkoren kargua betetzeko deialdia egin du. Interesa dutenek euren eskaerak Uharte Arakilgo uda-

letxean aurkeztu beharko dituzte. Gaurtik hasita hamabost eguneko epea dago horretarako.

# sakanerria >>

## >> Altsasu

### Morean gora

Altsasuko mugimendu feministak deituta ehun bat pertsona elkartuz iren igandean Emakumearen Nazioarteko Eguneko kontzentrazioan. Mugimendutik Sakanako emakumei indarra hartu eta ahalduzko deia egin zieten. Ibarreko emakumeendako benetako familia eta lan kontziliazioa eta soldata parekidetasuna aldarrikatu zituzten. Bestalde, ostiralean, Baionan bi emakume hil zituztela protestatzeko eta sexu indarkeria salatzeke elkarretaratzea egin zen.



## SAKANA

# Bi hilabete Nafarroako Gobernuaren erantzunik gabe

**Sakanako Plan Estrategikoa aurrera eramateko ibarretik egindako bilera eskaera etengabeei ez die erantzun Nafarroako Gobernuak. kontaktu erronda lehenbailehen hasteko eskatu dio Sakanako Garapen Agentziako administrazio kontseiluak**

Ilbeltzaren 13an Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak Sakanako Plan Estrategikoaren (SPE) aldeko ebazpena onartu zuen, aho batez. Ibarrean egindako lana aitortzearekin batera, plana gauzatzeko Nafarroako Gobernuari esku hartzeko eskatu zitzaion. Duela bi hilabetetik, ia

egunero, telefonoz edo e-postaz, SPE sustatu zuten erakundeetako ordezkariak Nafarroako Gobernuarekin hitzordua lotzen saiatu dira, alferrik.

Sakanako Garapen Agentziaren administrazio kontseilutik jakinarazienez, "plana eraginkorki gauzatzeko kolaborazio beharrea eta elkarrekin baliabideen bilaketan behin eta berri tematuko gara". Eta gaineratu dute: "ez dugu etsiko, eskualdearen egoera larriak hala eskatzen duelako, gizartearen eta Sakanako udal guztien agindua dugula-

ko, Nafarroako Parlamentuaren aho bateko agindua dagoelako eta, baliabide eskasak izanda ere, gure herrietan hainbat pertsonak pairatzen dituzten zailtasunei aurre egiteko ardura hartu dugulako".

Administrazio kontseiluko kideek nabarmendu dute SPE "maila guztietan adostasun zabalak sortzeko gai" izan dela eta ekonomia sustapena ez dela udalen eskumena. Bilera zain dagoen Sakanako ordezkari Aitor Karasatorrek, Sakanako Mankomunitateko presidentea, Ruben Goñik, Arakilgo alkatea, eta Garazi



Plana onartu zutenetako batzuk.

Urrestarazuk, Altsasuko alkatea, osatzen dute.

## SAKANA

# Udalek 34 langabetu kontratatuko dituzte

**Herrietan hainbat lan egiteko kontratatuko dituzte. Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasotzen badute ere, udalen bizkar dago inbertsioaren pisu handiena**

Sakanako 11 toki entitate aurkeztu dira Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren interes orokorreko edo sozialeko lanak egiteko diru-laguntzen deialdira. Langabezia dauken sakandarrak kontratatuko

dituzte udalek eta haiek herrietan hainbat lan egingen dituzte. Diru-laguntzak soldata ordaintzera bideratzen dira. Nafarroako Gobernuak eta Europako Gizarte Funtzarekin erdibana finantzatzen dute deialdia.

Sakanan 377.251 euroko inbertsioan egingen da 34 langabetu horiek kontratatzen. Gobernuak

143.745 euroko diru-laguntza ematen du (%38,1). Toki erakundeek 14 proiektu aurrera eraman nahi dituzte aurten. Arakilgo, Arbizuko eta Olatzagutiko udalak izan dira bina proiektu aurkeztu dituzten bakarrak. Lehenak guztira 60.605 euro jasoko ditu. Bigarrenak 16.713 eta, azkenak, 46.567.



## Udalen kontratazioak

Udala	Proiektua	Kontuan hartu daitekeen soldata gastua	Kontratuak	Laguntza
Arakil	Toki erakundearen azpiegitura publikoen, beheko ur horniduraren eta ibai, erreka eta dermioko bideen mantenua	53.547	5	19.866
Arakil	Dinamizazio sozio-kulturala, turismo sustapena eta etxebizitza. Arakilen ikerketa	7.058	1	2.619
Irurtzun	Udal eraikin eta kaleen egokitzapena eta mantenua	65.135	4	25.891
Uharte Arakil	Udal igerilekuen kudeaketa	21.237	4	6.753
Lakuntza	Udal igerilekuko garbiketa, mantenua, atezaintza eta sorospena	22.497	6	8.346
Arbizu	Liburategirako laguntzailea eta udaleko administrazio eta artxiborako laguntzailea	7.634	1	2.832
Arbizu	Udal eraikinen eta toki publikoen garbiketa peoia	9.079	1	3.368
Ergoiena	Jarduera anitzetarako udal langilea	11.267	1	3.583
Etxarri Aranatz	Ibilbide turistikoaren egokitzapena, Basoen Batzordea laguntzeko lanak, gaikako hondakin bilketaren mantentze eta garbiketa	70.096	3	25.006
Urdiain	Udaletxea eta eskolak margotzea	6.844	1	2.539
Altsasu	Udal eraikinen eta hiri altzarrien mantenua eta konponketa	41.409	2	17.557
Olatzagutia	Kaleetatik arkitektura-oztopoak kentzeko lanak, 3. fasea	41.315	2	17.518
Olatzagutia	Herrri basoan lanak egitea	5.158	1	1.914
Sakanako Mank.	Hondakin bilketa zerbitzuan aparteko lanak	14.975	2	5.953
<b>Guztira</b>		<b>377.251</b>	<b>34</b>	<b>143.745</b>

URTEKO KOTXERIK ONENA, EZ DA KOTXE BAT

IRAULTZA BAT DA

www.citroen.es



12.100€\*<sup>-GATIK</sup>

- > ESKUZKO KLIMATIZADOREA
- > UKIPEN-PANTAILA 7" (BLUETOOTH +USB +AUX)
- > 6 AIRBAG
- > ZAPAIRAKO BARRA



CITROËN  
C4 CACTUS,  
URTEKO KOTXEA  
ESPAINIAN.

ABC  
MEJOR COCHE  
2015



CRÉATIVE TECHNOLOGIE



KONSUMO MISTOA (100KM/L) / CO2 EMISIOA (G/KM): CITROËN C4 CACTUS: 3,1 - 4,7/82 - 107

\*C4 Cactus pureTech 82 Feel Fine salmenta prezioaren arabera: 12.100€ (zergak, garraioak, es-kaintza eta Pive plana barne), bere izenean zegoen kotxea ekartzen duten bezero partikularrendako eskaintza, 6000€ko gutxieneko finantziario eskatzen dutenak Banque PSA Financieren bidez 36 hilabeteko iraupena izango dutenak. Hilabete osorako eskaintza, partehartzaile, Penintsula eta Bale-iriletan. Finantzatuko ez duen bezeroarentzako prezioa: 13.330€. Ikusgai dagoen modelo: C4 Cactus pureTech 82 Feel Fine.

## » Irurtzun

## Karpa Trinitate festetarako

Horixe da Irurtzongo alkate Txiki Iriartek azaldu digun nahia. Aurrekontu parte-hartzaileen bidez 35.000 euroko diru saila horretara bideratzea erabaki zuten irurtzundarrek. Azken bi larunbatetan karpak nolakoa izan behar zuten eta nola kudeatu behar zen aztertzen egon dira batzarrean.

Adostu dutena da 150 metro karratuko karpa bat Barazki



Gunean jartzea. Baina behar izanez gero beste kokapen batera eramateko aukera ere izanen da. Bai

osoa edo modulutan banatuta. Karpak etxola txuri itxi baten itxura luke eta erdiko aldean hiru metroko altuera. Bi batzarretan argi gelditu da karpak kudeaketa eskatzen duela eta horretan ari dira sakontzen. Egunez zabalik egonen da, edozein sartzeko moduan. Bestelako jarduerak antolatuta nahi dituenak udalarekin harremanetan jarri beharko du.

## » Urritzola

## Batzarrean zehaztu dira egin beharreko lanak

Asteburuan egindako batzarrean urritzolarrek aurten herrian zein lan egin erabaki dute. Javier Correa Yalar kontzeju buruak esan digunez joan den urtean Arakilgo Udalarekin batera Etxarrenerako bidea konpondu ondoren kontzejuak dirurik gabe gelditu da.

Hala ere, Correak esan digu herrian konponketa batzuk egiteko daudela. Horiek Arakilgo Udalak kontratatutako langileekin



egin nahi dituzte. Egiteko horien artean aska garbiketa eta zartatuta dagoen kaleko zoru zatiaren konponketa daude. Joan den urtean kontzeju etxean sukaldea jarri zuten, elkarte modura erabiltzeko. Eraikinean itajurak daude eta haiek konpontzeko ere eskatuko dute. Urritzolarrek hilerrian ere lanen bat egin nahiko lukete baina Arakilgo Udalarekin hitz egin beharko dute lehenik.

## » Bakaiku

## Gaztainondoak basora

Domekan basoan gaztainondo zuhaixka batzuk sartzeko asmoa dute Bakaikun. Lan hori herritar guztien artean egiteko gonbitea luzatu dute eta hitzordua etziko jarri dute, 9:30ean Bakarrekoe-txea Elkartean. Herri basoko gaztainondoan egoerarekin kezka zuten hainbat herritarrek lantal-

dea sortu zuten. Hura da etziko deialdia egin duena. Aurretik, egun dauden gaztainondoan ingurua garbitu eta haiek markatu izan dituzte. Gainera, gaztainondoei buruzko hitzaldia eta tailerra ere antolatu izan dute. Guztia herriko natur ondarea mantendu ahal izateko.



## » Arruazu

## Sor Olimpia mojararen erahilketaren 50. urteurrena gogoan



Rosalía Gorostiaga Otxagabia "Sor Olimpia" moja dominika 1964ko azaroaren 24an hil zuten, Kongon. Oroimenezko meza igandean egingo diote, 12:00etan, Arruazun, Francisco Perez gotzaina buru dela

1964an Kongo egoera nahasian zegoen. Belgikako kolonia izan ondoren, 1960an independentzia lortu zuen eta Belgia Kongoa izatetik Kongoko Errepublika Demokratikoa izatera bilakatu zen. Baina trantsizioa ez zen batere ongi burutu eta eze-gonkortasun politikoa nabarmena izan zen, gerrate zibila tarteko. Egoera nahasi horrek bete bete harrapatu zituen garaioko Stanleyvillen -egungo Kisangani- misioan zeuden moja dominikak.

1964ko azaroaren 24an Pierre Muleleren gerrillariak Errosarioko Misiolari Dominiken misioan erizain lana egiten zeuden lau moja hil zituzten, Rosalía Gorostiaga Otxagabia "Sor Olimpia" moja arruazuarra tartean. Azaroan gertakari latz haien 50. urteurrena bete zen eta erahildako mojak izan zituzten gogoan. Igande honetan Sor Olimpia bere etxean, Arruazun gogoratuko dute. 12:00etan haren aldeko meza ospatuko da, Francisco Perez gotzaina buru dela. Lakuntzako abesbatzak musika jarriko dio elizkunari. Bukarera, bildutako guztiendako auza-tea izango da Arruazuko ostatuan. +www.guaixe.eus

## » Etxarri Aranatz



Jose Luis Garmendia.

## 55 urte bete ditu zubiko istripuak

Larraitx Amadoz Lazkano

1960ko martxoaren 15ean gertatu zenez beharra Etxarri Aranatz. Auto baten barruan 10 bidaiari zihoazen eta Arakil ibaira erori ziren. Horren ondorioz, istripuan zortzi pertsona hil ziren. Hildakoen artean gehienak Casadamon-Rodriguez familiakoak ziren eta Gipuzkoatik beren herrira, Sesmara, itzultzean gertatu zen istripua. Egun horietan euri asko egin omen zuen eta errepideko zorua irristakorra zegoen. Antzadenez, Etxarriko Baratzeta eremuan dagoen zubiko bihurtunean irrastatu eta autoa ibaira erori zen. Arratsaldeko bostak inguruan suertatu zen. Momentu hartan Jose Luis Garmendia istripuaren lekuko izan zen beste hainbatekin batera, esaterako: Julian Aldasoro, Pedro Mari Garmendia edota Antonio Razkin. Haiek garai hartan Etxarriana zerrategian lan egiten zuten, istripua gertatu zen lekutik 200 metrora hain zuten ere. Hiru langile egurrarekin lanean ari ziren kanpoan eta autoa ibaira erortzen ikusi zuten. Lekukoek azkar batean abisua eman eta autoa bilatzera joan ziren. Egun hartan ur asko zekarren ibaiak eta, gainera, lokaztuta zegoen, hortaz, autoa ez zen ikusi ere egiten. +www.guaixe.eus

## » SAKANA

## Bioitzako lakua

Euri asko egiten duenetan gertatzen ohi denez, Bioitzan, Urbasa-ko kanpinaren ondoan, lakua sortu zen. Mendiak jasotako euri guztia ezin gorde eta ura laku moduan azaleratu zen aurreko astean. 600 bat metro luze eta 50 bat zabaleko lakua. Eguraldia lagun, natur gertakariak bisitari asko erakarri zituen Bioitzara. Piraguan ibil zenik ere bada.



ASIER LEOZ CRESPO

## » Irurtzun

## ITBren inauteri erreportajea

Irurtzun Telebistak aurreko ostiralean aurkeztu zuen otsailari dagoen saioa. Inauteriek osatzen dute emanaldiaren ardatza. Lorek Atakondoa eskolako inauterien berri ematen du. Ibonek, berriz, ostiral gauean izan zen herri kalejiraren ingurukoa. Eta larunbateko inauteri giroaren berri ematearekin

batera, Martinaren lehengusu Jose Ramon ezagutzeko aukera izanen du ikusleak. Agendarekin osatzen da ITBren otsaileko saioa.

Bestalde, ostiraleko aurkezpenarekin batera sariak zozketatu zituzten. Zenbaki sarituak honakoak: 636, tableta; 816, telebista; 1918, kamera eta 2211, TomToma.

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
EDARI BANATZAILEA

Geltoki auzoa 11 · Altsasu  
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta

Astehenetik ostiralera  
Eguneko menua  
8,25€

Asteburuetan  
Menu berezia 25€

948 467 876 · Altsasu

**kaxeta**

liburudenda / paperdenda  
Zure bertako opari denda

Fax Zerbitzua  
Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477  
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

**Berria erosi taldea**

## » Lakuntza

# Familiak Mikel Arregi Marinen memoria aitortu eta errespetatu dadila eskatu du

**Nafarroako Parlamentuan egin du eskaera, ostiralean gatazkaren beste biktimendako lege proposamena aztertu aurretik**

Mikel Arregi Marin lakuntzarren senideak asteartean Nafarroako Parlamentuko Presidentzia, Justizia eta Barne Batzordean izan ziren; Clara Arregi, Javier Andueza Mirari Imaz, Josu Imaz eta Txaro Arregi egon ziren saioan. Azken biak izan ziren hitza hartu zutenak. Guardia Zibilak 1979ko azaroaren 11n Mikel tiroz hil zuela kontatu zuten.

## Biktima ezberdin

Orduko epaiak senideak "biktima ezberdin" sentiarazi zituen eta "halako inpotentzia" sortu ziela kontatu zuen arrebak. Txarok Parlamentuan eskatu zuen gatazkaren beste aldeko biktimak ere onartuak izan daitezela. "Ez dugu dirurik nahi. Mikelen memoria aitortu eta errespetatu izan dadila besterik ez. Hautetsia zen, gainera".

Imazek indarrean izan den "zigorgabetasuna" salatu zuen. Aldi berean, "Mikelen memoriari urteetan egindako eraso" sala-



Mikel Arregi Marinen senideek Nafarroako Parlamentuko batzordean eman zituzten azalpenak. UTZITAKOIA

tu zuen; "senideak lore eskaintza egitera joan eta gobernuaren baimena behar dela esan izan digute. Joan den urtean Dignidad y Justicia epaitegira jo zuen oroigarria kentzeko eskatuz. Edo Espainiako Barne Ministerioak Lakuntzako Udalarri herrian haren irudia duen mural bat borrazteko eskatu izan dio".

## Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Presidentzia, Justizia eta Barne Batzordea gaur elkartuko da berriro, 10:00etan. Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko Foru Lege proposamena izanen da aztergai. Bilduko,

Aralar-NaBaik eta Izquierda-Ezkerrek gonbidatuta Arregiren senideez aparte, indarkeriaz hildakoen hainbat senide pasa dira batzordetik euren lekukotasuna emateko.

Lakuntzarren astearteko agerraldiaren ondoren **Bilduko Barkartxo Ruiz Jasok** estatuaren indarkeria ez dela kasu isolatuetara mugatu nabarmendu zuen.

Urtetan polizia indarrek izandako inpunitatea salatu zuen. Egia argitzeko ikerketa batzorde ofiziala eratzea eskatu zuen eta baita Arregi motibazio politikoko biktimatzat hartzea ere.

**Aralar-Nabaiko Patxi Zabaleta Zabaleta** adierazi zuen Arregi biktima gisa hartzea biktima guztien aldeko zerbaite dela: "horrek ekarpena egiten dio etorkizuneko elkarbizitzari. Berdintasunean eraiki behar dugun eta giza eskubideen onarpenean eraiki behar dugun elkarbizitzari". **I-Eko Txema Mauleon Etxeberriak** "egia guztia" ez dela ikertu esan zuen, "askotan inpunitatea" izan dela gaineratuz. Mauleonek "egia, erreparazioa eta oroitzapena" exijitu zituen, gertaerak "ez errepikatzen eta gizarte errekontziliatua lortzeko".

**UPNko Javier Caballero Martinezek** familiari elkartasuna adierazi zien. **PSNko Pedro Rascon Maciasek**, aldiz, nabarmendu zuen "egia, aitortza eta erreparazioa bilatu" beharra dagoela. Familiari elkartasuna azaldu zion. [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## SAKANA



## Lau turismo kalitate marka Sakanara

**Jarduera Onen Eskuliburuarekin lan egiten duten establezimenduei balioa emateko eta establezimendu horiek bistaratzeko helburuz banatzen da kalitate bereizgarria**

Nafarroako Mendialdeko 70 turismo establezimenduk kalitate marka jaso zuten Oibarren asteartean. 59 establezimenduk berriro egin dute kalitatearekin duten konpromisoa eta 11 gehiago batu dira. Lau dira sakandarrak: Hiriberriko Martinberri landetxea, Arbizuko eko-kanpina, Etxarri Aranazko kanpina eta Urdiaingo Kaluxa jatetxea.

## SAKANA

# Turismo baliabideak ezagutzeko bigarren topaketa

**Asteazkenean, 12:00etan, Izurdiagako Brun anaien sutegian. Bidelagun elkarteak Kepa Junkera omenduko du**

Sakanako turismoko eragileei bertako turismo baliabideak ezagutarazteko bisita erronda antolatzen ari da Bidelagun Turismo Elkarrea. Helburua Sakanan bisitatzen duten pertsonen egonaldiak aberastea eta Sakanan eragina izatea da. Hala, otsailaren 9an Altsasuko Basoko Mari artisau gunean egin zuten iragarriak dituzten lau topaketetatik lehena.

Sakanan turismoaren arloan lan egiten duten eragile guztien topaleku izan asmoz sortu zen Bidelagun elkarteak. Asteazkenean turismo arloko eragileei eta interesa duten guztiei Bidelagun

## Izen ematea

Bisita doakoa da baina tokiagatik aurretik izena eman behar da: [bilatabe@gmail.com](mailto:bilatabe@gmail.com)

elkartearen asmo eta proiektuak aurkeztuko dizkiete sutegian bertan. Horrekin batera, Forjaren interpretazio zentroa ezagutzeko aukera izanen dute. Bertan zazpi giza ditan forja lanak izandako garapena eta Brundarren historia ezagutu ahal izanen da, Irurtzungo azokarekin harreman zuzena duen historia.

## Junkerari aitortza

Bidelagun elkarteak asteazkene-



Basoko Mari artisau gunean Bidelagun elkarteak egindako aurreneko topaketa

ko topaketa Kepa Junkera trikitilariaren musika ibilbideari aitortza egiteko baliatuko du. Hark "kulturari egindako ekarpena eta nortasuna tradizioetik modernitatera proiektatzeko izandako gai-

tasuna" gorai patuko dute. Interpretazio zentroari bisita bukaeran lan eta festa soinuek bat eginen dute, forjariak ingudeari eta Junkerak trikitiari ateratzen dizkio tenak.

**Kaixo**  
Kafetegia - Jatetxea

TATETXEA - RESTAURANTE - KAIKO - BAR-CAFETERIA

GARCIA XIMENEZ 20-22  
948.46.91.24 ALTSASU  
[www.restaurantekaixo.com](http://www.restaurantekaixo.com)

**TXIKIKO**  
haurren arropa eta lentzeria

Udako arropa prest!

948 46 73 08  
Ferialleku 2 - ALTSASU

**sorgiñak**  
taberna

LAKUNTZA  
948 576 357

**PORTUKO** okindegia  
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdiain: 948 563 763

**SAKANA**

## Enpresen langile kualifikatu premia, Lanbide Heziketaren prestakuntza eskaintza

**Sakanako enpresetan identifikatu diren langile behar zehatz batzuei erantzuteko prestakuntza ibilbide hastea da hilabete honetan hasiko den ikastaroaren helburua**

Txirbil-harroketako makina eta sistemen prestaketa eta programazioa gaitasun ziurtagiria eskainiko da Sakanako Lanbide Heziketa (LH) institutuan, Altsasun, martxoaren 23tik aurrera. 260 orduko iraupena duen ikastaroak eta 20 ikasle eman dezakete izena. Sakanako garapen agente Iker Manteolak esan digunez, "gezurra badi-rudi ere, mekanizatu, tornulari, eta fresatzaile kualifikatuak lortzea zaila suertatzen zaie Sakanako enpresei, baita soldadura desberdinak egiteko gaitasuna duten langileak".

Hori dela eta, Hezkuntza Departamentuarekin, Altsasuko Enplegu Bulegoarekin eta LH ikastetxearekin lankidetzan, behar horiek nola ase beharko lirakeen azter-



Langileak trebatuko dituzte enpresen eskariari erantzuteko.

tzen ari dira. Eta azterketa horien emaitzetako bat da hilabete honetan eskainiko den ikastaroa. Manteolak Sakanako Plan Estrategikoa ekarri du gogora: "helburua eta lehentasunen artean enpresa eta hezkuntza sistemen arteko harremanak sortzea agertzen da. Horretarako Sakanako enprekin bideratzen ari garen industria

dinamizazio proiektuaren barruan, Sakanako enpresen lanpostuen prestakuntza beharrak aztertzen ari gara".

**Informazio gehiago:**

[http://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Empleo+y+Economia/Empleo/Formacion/Personas+desempleadas/Default.htm?id=1998](http://www.navarra.es/home_es/Temas/Empleo+y+Economia/Empleo/Formacion/Personas+desempleadas/Default.htm?id=1998)

**SAKANA**

## Hondakin bilketaz Espartzak esandakoari erantzun dio Karasatorrek

Jose Javier Espartzak, Nafarroako Gobernuako kontseilariak eta UPN-ko hautagaia denak, pasa den ostegunean Nafarroako Parlamentuan adierazi du Sakanan indarrean jarritako hondakin bilketa sistema inposizioa zela.

Sakanako Mankomunitateko presidente Aitor Karasatorre Muguruzak gezurra esatea eta ibarraren eza-gutza eza izatea leporatu dio. Hondakin bilketa sistema berria ezartzeko "parte hartze prozesu luzea" izan zela erantzun dio. "horri esker hondakin gaikako bilketa %25etik %80ra igoda Sakanan, materia organikoen bilketa %40ra iritsiz". Karasatorren iritziz "Espartzak hondakin Planaren porrota estali nahian atez atekoa erasotzen du". Bosgarren edukiontzia inolako kontsultarik gabe "inposatu" dela erantzun du Mank-eko buruak. Aldi berean, Olatzagutiko porlandegian hondakinak erretzeko plan berezia salatu du. +www.guaixe.eus



Sakandarrak manifestaziora deitzen.

## Aldaketa sozialaren garaia dela aldarrikatzeko gonbitea

**Bihar, 17:30ean, Iruñeko Antoniutti parketik abiatuko da aldaketa soziala orain! leloa duen manifestazioa. Euskal Herriko Karta Sozialeko eragileek deitu dute**

Euskal Herriko Karta Soziala hainbat arlotako eragileek idatzi dute eta hura hiru ideia nagusitan laburbiltzen dute: bizitzaren jasangarritasuna erdigunean izan den duen gizarte erdua defendatzea; gai ekonomiko, sozial eta lan eremuko erabakiak hartzeko erabateko ahalmena aldarrikatzea eta, azkenik, helburuak lortzeko mobilizazioaren beharrezkotasuna.

Sakanako hainbat eragilek bat egin dute biharko deialdiarekin: Altsasuko mugimendu feminista, AHT gelditu! elkarlana, 3 Mugak batera, Goi tentsioaren aurkako plataforma, ELA, LAB, Ernai, Pentsionistak Martxan eta Sasoia. Guztiek ere argi dute "inposatzen dizkiguten erabaki politikoez herritarron pobretzea eta prekaritate egoera iraunkortzea" ekarri dutela, "aberastasunaren banaketa bidegabe eta ezberdintasun ekonomiko eta sozialak eragotuz". +www.guaixe.eus

**Arakil**

## EHBilduren bilgune irekiak

Arakil denon artean eginen dugu lelopean Arakilgo EHBilduk bilgune irekiak antolatu ditu astebururako. Gaur, 19:30ean Ihabarko kontzeju-etxean jarri du hitzordua. Bihar, berriz, 19:00etan, Etxarrengo kontzeju-etxean. Arakilgo EHBildutik arakildar guztiak bilgune irekietan parte hartzea gonbidatu dituzte.

**Altsasu**

## EHBilduren topaketen segida

Altsasu 2020 Topaketa Irekiak herenegun abiarazi zituen EHBilduk. Aipatu urtean zer nolako Altsasu nahi den zehaztu nahi du koalizioak haien bidez. Horretarako 13 arlotan diagnosiak egin, hausnartu eta aurrera begirako jarduerak zehaztu nahi ditu. Horretarako Altsasuarrik gonbidatu dituzte. Gaur, 19:00etatik aurrera, Gure Etxea eraikinean hezkuntza, euskara, kultura, kirola landuko dituzte. Bihar, berriz, toki berean 10:30etik aurrera enplegua eta garapena, gizarte zerbitzuak, osasuna, politika feminista eta sexu antzitasuna eta hirugarren adina izanzen dira aztergaiak.

**Arakil**

## Independenteak hauteskudeei begira

Arakilgo Independentek arakildarrik asteartean, 19:30ean, ibarreko udaletxera gonbidatu dituzte. Talde independentea udal programa prestatu eta hauteskunde zerrerdak zehazteko lanean ari da eta horretan arakildarren parte hartzea ezinbesteko jo du.

**Altsasu**

## Goazen Altsasu hautes-elkartek hauteskundetara aurkezteko abalak behar ditu

**Podemos Altsasu Ahala Dugu zirkuluak sustatu du eta udal hauteskundetara aurkeztu ahal izateko 100 sinadura lortu behar ditu**

Alderdiaren izena erabili ezin dutenez, Altsasuko Ahal Duguko zirkuluko kideek hautes-elkarte formula erabiliz udal hauteskundeetara aurkezteko erabaki dute. Horregatik altsasuarrei babesa eskatu diete. Altsasun erroldatuta dauden 100 pertsonaren abalak edo sinadurak behar dituzte. Udaletxeko idazkariaren aurrean eman beharko dira sinadura horiek eta nortasun agiria erakustearrekin batera. Sinadurak emateko epea ere zehaztu dute: apirilaren 7tik 17ra arteko lan egunak, 11:00etatik 13:00etara; 8an eta 15ean 17:00etatik 19:00etara sinatzeko aukera ere izanen da. +www.guaixe.eus

## Sakanako Libre Eguna bihar Etxarrin

**Epaiketa politikoak eten eta herri aske batean pertsonak libre nahi dituztela aldarrikatzeko dute**

Sakanako Libre dinamika antolatu du biharko Etxarri Aranazko egitarua. Herri aske batean pertsonak libre! Elkartasunetik konpromisora leloa du. Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea eta horren aldeko lan politikoa ezabatzeko epaiketa politikoa egiten direla eta haietan oina-



Hainbat sakandarrek aurkeztu zuten Libre eguna.

rrizko eskubideak urratzen direla salatu nahi da biharkoan.

Dinamikako kideen "iritziz Euskal Herriaren eskubide zibil eta politikoak ukatzean dago gatazkaren oinarria" eta halako epaiketak "Euskal Herriaren kontrako erasoak dira". Halako epaiketetan zortzi sakandar auzipeturi-

daudela gogorarazi dute ere. Libre dinamikatik gaineratu dutenez, "Euskal Herriko gizarteak eraso horien guztien aurrean konponbidearen aldeko apustua egiten duela argi dago". Herri aske batean pertsonak libre nahi dituztela nabarmendu dute. +www.guaixe.eus

**Egitaraua**

**Goizez**, Zorri Azoka.  
**12:00etan** Aretu futbol partida: auzipetuak & Auzitegi Nazionala  
**14:30ean** Herri bazkaria eta kantaldia.  
**18:30ean** Eskalada txapelketa.  
**20:00etan** Ekitaldia.  
**23:00etan** Kontzertuak: Odio, Arkada eta Sonido de la metralla.

**MOTZEAN**

## Errigorak 150 olio bidoi banatu ditu ibarrean

Nafarroako ekoizleen olio, kasu honetan, Euskal Herriko sukaldeetara eramateko zereginean ibili da azken asteetan Errigora ekimena. 3.000 eskatzaile baino gehiagok eskatu dute Errigoraren bidez olio, guztira 9.100 bidoi eta 45.500 litro olio. Joan den urtearen bikoitza. Errigorak Etxarri Aranazko eta Altsasuko kideen bidez 150 bidoi olio banatu ditu.

Errigorak Nafarroako hegoaldeko uzta, eskutik eskura izeneko kanpainarekin kalitatezko elikagaiak

eskuratzeko aukera eman nahi du. Baina batez ere kontsumo ohiturak aldatu nahi ditu, horrela Nafarroako nekazari eta ekoizleen ogibidea babesteko. Auzolanean. Orain olio izan da, maiatzean kontserben txanda izan dena.



## Xabier helmuga

Asmo horrekin abiatuko dira makina bat kristau fededun asteburu

honetan. Sakanatik goiztiarrenak gaur gauean hartuko dute Xabierko Frantziskoren sortetxerako bidea, bihar goizen gehienak. Bigarren Xabierraldiko erromesaldia bihar izanen da. Zangozatik 15:00etan abiatuko da gurutze-bidea eta meza 17:00etan izanen da.

Igandean egin zen aurreneko erromesaldia eta eguraldia lagun makina bat izan ziren Xabierrako bidea egitera animatu zirenak. Asteartean Mendialdeko parrokiatik ere Xabierra joan ziren Graziako Bederatziruenean parte hartzera. 75 urtez elkarturik bidean leloa du aurten Xabierraldia. Erromesaldiaren platinozko ezteiak eta xabiartar jubileu urtea ere bada. Erromesek kredentziala jasotzeko aukera izanen dute.



TXIRRINDULARITZA

ESPAINIAKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKE-  
TA: 9. jardunaldian, A multzoan Irurtzunek  
Burgosen jokatu zuten eta bi partidak galdu

zituen. B multzoan Altsasuk Paz Zigandari bi  
partidak irabazi zizkion. Beitia nagusitu zen  
banakakoan eta Azpiri-Peñas binakakoan.

## Atletismoa



## Ramirez 27.a Beasainen

7 km-ko proban lehiatu zen

Igandean V. Beasaingo Herri Lasterketa jokatu zen. 191 korrikalari iritsi ziren 14 km-ko lasterketako helmugara, Endika Donnay buruzela (46:51). Juan Carlos Cano altsasuarra 148.a izan zen (1:04:52). 7 km-ko lasterketa, aldiz, 89 korrikalari osatu zuten, Roberto Carlos Trejo buruzela (22:31). Jose Ramon Ramirez altsasuarra 27.a sailkatu zen (27:45) eta David Trevejo olaztiarra 30.a (28:36).

## Kiroldegia

## Zumbathón ekitaldi solidarioa larunbatean Araian

StopSanfilippo fundazioaren aldekoa izanen da eta bertan sakandarrek ere hartuko dute parte

Araia kiroldegiak ekitaldi solidarioa hartuko du bihar, larunbatean, 12:00etatik 14:00etara: Zumbathón. Ekitaldia ETBko aurkezle Africa Baetak aurkeztuko du eta izenak dioen bezala, zumba kirol maratoia izango da. Ekitaldi solidarioa da Stop-sanfilippo fundazioaren aldekoa delako.

Sanfilippo gaixotasun arraroa da, tartean haur euskaldun batzuek dutena, eta zumbathoian lortzen den diru guztia gaixotasun hori dutenendako bideratuko da. Ekitaldia Ainhoa Quiñones, Carolina Cuellar eta Maria Barroso monitoreek gidatuko dute. Musika doinuei jarraiki, zumba kirola egingo dute Araia hurbiltzen direnek.

## LAGUNTZA

12 urte bitarteko haurrek sarrera dohain izanen dute eta hortik gorakoek 4 euroko sarrera ordaindu beharko dute. Horretaz gain, Stop-sanfilippo fundazioarendako diru ekarpina egin daiteke 2045 0028 809113398728 kontu zenbakian. Araia hurbiltzen diren parte-hartzaile eta ikusle guztien artean Nestlé produktuen sare eder bat zozketatuko da, 200 euroko baliokoa.

## SAKANDARRAK

Ekitaldiarekin bat egin dute gertuko kirolari ezagunek, tartean sakanadarrek, Zubieta eta Ezkurdia tarte-ko. Antolakuntzatik adierazi digutenez, litekeena da Zumbathón ekitaldi solidarioa Sakanara etortzea.

## Atletismoa

## II. Lilasterketa Altsasun

Emakumeendako proba ez lehiakorra igandean 12:00etan abiatuko da Foru plazatik

Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Egunaren ildora, Altsasuko Udalak, Emakumeen Bilgunearen bitartez aurreko urtean lehenengo aldiz antolatu zuen Lilasterketa, emakumeendako lasterketa parte-hartzaile ez lehiakorra. Donostia-ko Lilatoia Sakanara ekarri eta Altsasun emakumeen lasterketa bat antolatu nahi izan zuten. Eki-menak arrakastahandia izan zuten, Lilasterketarako egindako 100 petoak amaitu baitziren. 122 emakumek parte hartu zuten proban; gazteenak 5 urte zituen eta helduenak 64. Parte-hartzaile gehienak 21-40 urte artekoak ziren.

Aurreko urteko arrakasta ikusita aurten ere Lilasterketa antolatzea erabaki du Altsasuko Emakumearen Bilguneak. Horretarako Dantzaleku Sakana Atletismo Klubaren laguntza izan du. Igandean izanen da, Altsasuko Foru plazatik abiatuta, 12:00etan. Berrintasunaren aldeko lasterketa hau ez da proba lehiakorra izango. Korrika, oinez... norberak ahal duen moduan egiteko aukera izango du, helburua emakumeen parte hartzea sustatzea delako, 0-99 urte bitarteko emakumeena. Probak San Silbestrearen ibilbide bera izango du, 4 km ingurukoa. Bukaeran parte-hartzaileendako hamaiketakoak izanen da.

## Herri kirolak

## Arbizu-Murchante desafioa Korrikaren alde



Martxoaren 19an, San Jose egunean, Murchanten

Asko dira Korrikaren alde antolatu diren ekitaldiak. Arbizukoek ekitaldi berezi bat antolatu dute martxoaren 19rako, ostegunerako. Ostegunean San Jose eguna da, eta festa dela aprobetxatuz, Arbizu eta Murchante herrien arteko herri kirol desafioa antolatu dute Murchanten, Korrikaren alde.

Egun osoko festa izanen da. Goizeko 10:30ean hasiko da festa, Murchanten. Desafioan parte hartuko duten guztiak kalejiran abiatuko dira plazatik kiroldegiraino, Tuterako joaldunak, Murchante-ko erraldoiak eta gaitariak eta Arbizuko trikitilariak lagun dituz-

tela. Goizeko 11:00etan hamaiketako egingo dute kiroldegian. Bi herrietako produktuek dastatuko dituzte: Murchanteko ogi-txigorak baratzuriarekin eta ardoa eta Aribzuko gazta eta txistorra. 12:00etan hasiko da Murchante eta Arbizu arteko herri-kirol lehia. Hura bukatutakoan, 14:30ean senidetze bazkaria egingo dute eta arratsaldean, 18:00etan, Triki poteoa eta jota erronda Arbizuko trikitilariarekin eta Murchanteko Jota Eskolakoekin.

Murchantera joateko autobusa antolatu da Arbizun. Autobuserako eta bazkarirako izena ematea betiko tokietan egin behar dela adierazi dute antolatzaileek.



2014an 122 emakume inguruk parte hartu zuten Lilasterketan.

Izena ematea zabalik eta dohain

Izena ematea dohainik izanen da.

Aurretik [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com) web orrian, eta egunean bertan, 11:30ean, Gure Etxean.

&gt;&gt;

## Sakandarrak bikain Nafar Kirol Jolasetan

Nafarroako Herri Kirol Jokoetako 2. jardunaldian aurrean izan ziren gure taldeak

Igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoetako bigarren jardunaldia jokatu zen Berroetan. Kimuen mailan, haurren mailan eta kadeteen mailan jokatu ziren proba konbinatuak, eta haurren mailan eta kadeteen mailan sokatira.

## Proba konbinatuetan

Kimuen mailako 14 taldeak 4 multzotan banatuta aritu ziren eta Beriain talde sakandarra izan zen onena (6:34.88). Iñigo Aritza C bigarrena sailkatu zen (6:37.45), Andra Mari hirugarrena (6:40.78), Iñigo Aritza A bederatzigarrena (7:11.86), Ondatz hamaikagarrena (7:15.18) eta Iñigo Aritza B hamalagarrena (7:39.32).

Haurren mailan 8 talde lehiatu ziren eta Andra Mari izan zen onena (8:46.03). Leziza hirugarrena sailkatu zen (9:32.40) eta Iñigo Aritza zortzigarrena (12:11.00). Eta

kadeteen mailan 6 talderen artean Berriozar gailendu zen (9:56.72), Andra Marien aurretik (10:40.02). Iñigo Aritzakoak seigarrenak sailkatu ziren (11:19.44).

## Sokatiran

Sokatirako haur mailan (480 kilo) talde sakandarrak izan ziren jaun eta jabe. A multzoan Iñigo Aritza (3 puntu) nagusitu zitzaizen Berriozarri (2 puntu) eta Lezizari (puntu bat), eta B multzoan Andra Mari gailendu zen (3 puntu), Putterriren (2 puntu) eta Ultzamaren (puntu bat) aurretik. Kadete mailan 5 talde lehiatu ziren eta Berriozar izan zen onena (5 puntu). Andra Mari hirugarrena sailkatu zen (3 puntu) eta Iñigo Aritza laugarrena (2 puntu).

## Berriozarren

Nafar Kirol jokoen hirugarren jardunaldia igandean jokatu da Berriozarko kiroldegian, 11:00etan.



Andra Mari ikastolako taldeko tiratzaileak, bizkarrez, lehen jardunaldian.

## Areto futbola



Auzomotojorik taldeak sartu zituen gol gehien final laurdenetan.

## Finalerdien ordua

## Final laurdenetako emaitzak:

Arbizu 5 - Back Street Boys 4  
 Auzomotojorik 10 - Hijos de perla 3  
 Racing San Migel 9 - Arbizu harrobia 2  
 Bunker 5 - Iturmendi 1

## Futsalsakana Txapelketako finalerdiak jokatu dituzte Arbizuk, Auzomotojorik, Racing San Migelek eta Bunkerrek

Futsalsakana txapelketako hasierako ligaxka despeditu eta gero, final laurdenak jokatu ziren asteburuan. Ez zen apenas sorpresarik egon eta talde faboritoek egin zuten aurrera. Hori bai, nabarmenezkoa da Arbizuk ederki sufritu behar izan zuela Back Street Boys taldea 5-4 menpean hartzeko. Partida bukatzeko 50 segundoren faltan sartu zuen Arbizuko Raul Ericcek garaipenaren gola.

Bestalde, Bunkerrek 5-1 irabazi zion Iturmendiri partida lehian. Racing San Migelek, bere aldetik, hasieratik lotu zuen partida. Asier Turunbaik 4 gol eta Jose Mari Gorritik 3 sartu zituzten, eta, azkenean, 9-2 gailendu

ziren uhartearrak. Bukatzeko, Hijos de perla taldekoak soilik 5 jokalarirekin jokatu zuten partida eta asko nabaritu zen errelebo falta. Auzomotojorik 10-3 hartu zuen menpean eta, nabarmenezkoa da Javier Belokik hiru gol sartu zituela.

Ostiralean Futsalsakana Txapelketako finalerdiak jokatu dira, Uharte Arakilgo pilotaleku estalian. Lehen finalerdian Bunkerrek Auzomotojorik izango du arerio eta bigarrenan Racing San Migelek Arbizu. Maila handiko partida borrokatuak espero dira, onenen garaia baita.

## Finalerdiak jokoan

## Ostiralean

19:30ean: Bunker - Auzomotojorik

20:30ean: Racing San Migel - Arbizu K.T.



## Magnak Espainiako Kopa ekarri nahi du

## Palma Futsal izango du aurkari final laurdenetan

Atzo hasi zen eta igandera bitartean jokatu da Espainiako Areto Futboleko Kopa, Ciudad Realen. Ondoko taldeek lortu zuten sailkatzea: El Pozo Murcia, Jaen Paraiso Interior, Inter Movistar, Burela Pescados Rubén, Magna Nafarroa Xota, Palma Futsal, Barcelona eta Aspil Vidal Ribera Navarra.

Kopa final laurdenekin hasiko da. Magnak Palma Futsal izango du aurkari gaur, ostiralean, 19:00etan. Irabazlea larunbateko finalerdirako sailkatuko da, eta Bartzelona eta Aspil Vidal Ribera Navarra taldeen arteko irabazlea izango du aurkari (larunbatean,

19:45ean). Beste multzoan, El Pozo Murcia Jaen Paraiso Interior izango du aurkari final laurdenetan eta Inter Movistarrek Burela Pescados Rubén. Bi taldeetako irabazleek finalerdia jokatu dute larunbatean. Kopako final handia igandean jokatu da, 20:00etan. Ea Imanol Arregiren mutilek lan bikaina egiten duten eta Kopa ekartzeko aukerarik duten.

## Zaragozaren kontra galdu

Ligako azken partidaren D-Link Zaragozak 5-4 irabazi zion Magnari. Arbitroekin oso kezu azaldu ziren irurtzundarrak. Sailkapenean Bartzelona da liderra (65 puntu) eta Magna 7.a (40 puntu).

## Haurren mailan Minikopa jokatu dute



Espainiako Kopa nagusiarekin batera Espainiako Minikopa jokatu dute kategoria nagusian jokatu duten taldeen harrobiek, haurren kategoriakoak hain zuzen. Horrela, Irurtzongo haur mailako Xota taldeak jokatu du Minikopa. Vicente Albizu "Bisu" eta Javier Viedamak zuzendutako taldeak Palma Futsaleko haurren taldea izango du aurkari gaur, ostiralean, 10:30ean jokatu diren final laurdenetan. Helduen kopan bezala, irabazleak Bartzelona eta Aspil Vidal Ribera Navarra taldeen arteko irabazlearen kontra jokatu behar du finalerdia.

## Areto futbola



Etxarri, Oyarzunekin eta Saldiserekin.

## Gurpea Xotako Igor Etxarri Ibizara

## 3. mailako Gasifred Ibizan ariko da denboraldi bukaerara arte

Gasifred Ibizara 3. Mailako taldeak Gurpea Xota Magnako talde filialeko kapitaina, Igor Etxarri irurtzundarra fitxatu du. 25 urteko jokalaria Ibizako taldean ariko da denboraldi bukaerara arte.

Etxarri Gurpea Xotarekin bere azken partida jokatu zuen larunbatean Atakondoan. Tamalez, Irurtzongo taldeak ezin izan zuen kapitaina garaipen batekin despeditu, 1-5 galdu baitzuen Gurpeak. Partida hasieran omenaldia egin zioten Igor Etxarri. Xotako Vicente Oyarzunek eta Magnako Dani Saldise jokalariek oroiak eman zizkieten.

## Mendi txirrindularitza



Mikel Irigoien lanean bete bete. JUAN CARLOS IRIGOIEN

## Mikel Irigoien 28.a Arguedas Trofeoan

## 23 urtez azpiko mailan 8.a sailkatu zen

Igandean hasi zen Rural Kutxa BTT Kopa, Arguedasen jokatu duen Arguedas Trofeo-Bardeetako Atea probarekin. Antolakuntzak 7 km

pasako zirkuitu ikusgarria prestatu zuen, eta helduek 5 itzuli eman zizkieten. Patxi Cia (Olympia) eta Yolanda Magallón (Moncayo Bikes) izan ziren azkarrenak eta Kopako liderraren maillota jantzi zutenak.

Ciak hasieratik hartu zuen aldea eta 3 minutu pasa atera zizkion Zarabici-Trek taldeko Diego Tamayori. Lasterketan parte hartu zuen Mikel Irigoien uhartearra (Conor-Saltoki-Berriainz) 28.a izan zen sailkapen orokorrean eta 8.a 23 urtez azpiko sailkapenean.

## Irigoien taldearen aurkezpena

Conor-Saltoki-Berriainz izenarekin lehiatzen den Iturrotz Txirrindularitza Taldeak otsailean egin zuen 2014-2015 denboraldiko aurkezpena, Iberon. Taldeak 48 txirrindulari ditu kategoria txikietan: 5 hasi berrien mailan, 8 kimuetan, 14 haurren mailan, 12 kadeetean, 9 juniorretan. Bestalde, 25 txirrindulari lehiatzen dira 23 urtez azpiko, elite eta master mailako taldean. Tartean dago Mikel Irigoien. Uhartearra 23 urtez azpiko mailakoa da.

Conor-Saltoki-Berriainz taldea Euskal Herriko probatan, Espainiako Txapelketan, Aragoiko Itzulian, Espainiako Open eta Superprestigio txapelketetan lehiatu du, besteak beste.

## Futbola

## PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

24. JARDUNALDIA

**LAGUN ARTEA 1 - MUTILBERA B 1**  
 Lakuntzarrek irabaztea merezi izan zuten, baina azkenean berdinketarekin konformatu behar izan zuten. Unai Bakaikoak Lagun aurreratu zuen 30. minutuan eta nahiz eta lakuntzarrek aukera argiak izan, ez zuten partida behar bezala itxi. 75. minutuan Mutilberak bana berdindu zuen eta nahiz eta Lagun saiatu, puntu banaketarekin despeditu zen lehia. Atzo atzeratutako partida jokatzeko zen Lagun Artea Agoitzen kontra.

Sailkapena &gt;&gt;

1. Mendi ..... 52 p  
 13. Lagun Artea ..... 24 p

Asteburuko jardunaldia

**CANTOLAGUA - LAGUN ARTEA**  
 (Igandean, 16:45ean, Zangozan)

## ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

24. JARDUNALDIA

**ULTZAMA 1 - ETXARRI ARANATZ 5**  
**DONEZTEBE 2 - ALTSASU 1**  
 Atsedendaldirako 1-3 aurreratu zuen Etxarri Genta, Iñaki eta Markeli esker. Bigarren zatian Ultzamak ez zituen gol aukerak baliatu eta Etxarri, aldiz, ez zuen barkatu. Asierrek eta Markelek sartutako bi golei esker, azkenean 1-5 irabazita itzuli zen etxera Etxarri liderra. Donezteben, etxekoek dominatu zuten lehen zatian, nahiz eta Altsasuren atea ez zultatu. Bigarren zatian Altsasuk erantzun zuen eta bi taldeak pare pare aritu ziren. Dario Altsasu aurreratu zuen 70. minutuan baina Doneztebek berehalako erantzun zuen eta bi gol sartu zituen epe laburrean. 1-2 galduta itzuli ziren altsasuarrek.

Sailkapena &gt;&gt;

1. Etxarri Aranatz ..... 56 p  
 9. Altsasu ..... 32 p

Asteburuko jardunaldia

**ETXARRI ARANATZ - MENDILLORRI**  
 (Igandean, 16:30ean, Etxarri Aranatzen)  
**ALTSASU - SALESIANOS**  
 (Igandean, 16:15ean, Altsasun)

## Futbola

## Egiarreta eta Zaldua, biak liderrak

## Elomendiko Txapelketako A multzoko liderra da Egiarreta eta B multzokoa Zaldua

Gauzak primeran doazkie Elomendiko Txapelketan lehiatzen ari diren Egiarretari eta Etxarregi Zalduari. Elomendiko Txapelketako 2. faseko 12. jardunaldia jokatu da asteburuan. A multzoan, Zugar taldeari 1-2 irabazi zion Egiarretak. Sailkapenean lider jarraitzen du Egiarretak, 31 punturekin, Unziti bigarrenari 6 puntu aterata. Asteburuan Apolo taldearen kontra ariko da Egiarreta, larunbatean Noainen.

B multzoan Zaldua dugu lider berria, Etxarregi taldeak Ageri taldeari 2-3 irabazi eta gero. Zalduak 23 puntu ditu, Maldartea bigarrenak baina 2 gehiago. Asteburuan Zalduak Basati taldearen kontra jokatu du, Lekunberrin.

## Txirrindularitza

## Jaime Roson 6.a Aiztondo Klasikoan

Asteasuk Espainiako Koparako baliagarria den Aiztondo Klasikoa hartu zuen. Proba Jorge Azanzak zuzentzen duen Fundación Euskadiko Mikel Iturriak irabazi zuen, helmugara bakarrik helduta. Rural Kutxa talde sakandarreko Jaime Roson seigarrena sartu zen, 31 segundora.

## Duatloia



## Arbizuko duatloian izena ematea zabalik

## Martxoaren 28an jokatu da

Arbizuko duatloia martxoaren 28an jokatu da, larunbatarekin. Goizeko 10:15etik aurrera kategoria txikiendako Arbizuko III. Haur Duatloia egongo da jokoan, aurrebenjaminetatik hasita haurren mailaraino, eta arratsaldean, Arbizuko XIX. Duatloia, helduen probanagusia. Aurten, nobedade moduan, bi distantzia egongo dira aukeran proba nagusian. Betiko ibilbidea (8 km korrikan, 32 km bizikletan eta 4 km korrikan), eta ibilbide herrikoa (4 km korrikan, 16 km bizikletan eta 2 km korrikan). Erreleboka ere parte har daiteke. Izena ematea zabalik dago [www.navarratriathlon.com](http://www.navarratriathlon.com) webgunean, Competiciones ataletan sartuta. Kategoria txikiak dohainik dute izena ematea eta helduek, aldiz, 20 euro, federatutakoek eta 26 euro federatugabeek. Erreleboka parte hartu nahi dutenek, 40 euro ordaindu beharko dituzte taldeko.

## ALTSASUKOAN ERE IZENA EMAN DAITEKE

Altsasuko duatloia aste bat lehenago jokatu da, martxoaren 21ean. Izena ematea zabalik dago, helbide berdinean, [www.navarratriathlon.com](http://www.navarratriathlon.com) webgunean.

## MAIZA EIBARREN

Larunbatean 24. Eibarko Duatloia jokatu zen (5 km korrikan, 19 km txirindulan eta 2,5 km korrikan). Oier Ariznabarreta (53:04) eta Lourdes Oartzabal (1:01:49) izan ziren azkarrenak. Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza 37.a sailkatu zen (57:31).

## Mendia

## Erniora Sakanako Mendizaleekin

## Martxoaren 22rako antolatutako mendia ibilaldia baina izena ematea zabalik dago

Sakanako Mendizaleak taldeak prest dauka martxoaren 22rako antolatutako mendia ibilaldia baina izena ematea zabalik dago. Horretarako ohiko tokietan eman behar da izena, osteguna baino lehen, mendia arduradunekin harremanetan jarri. Bestela, ondoko telefonora hotsegin daiteke (639 117 631).

## IRATXOKO ELTXUMENDIRA

Iganderako mendia irteera prestatu du Irurtzungo Iratxo elkarteak. Eltxumendira joateko asmoa dute.

## Pala

## Gure Pilotako palistak puntan

Nafarroako Paleta Goma Txapelketako finalak:

**Benjaminak:** Irisarri-Ijurko (Gure Pilota A) 8 - Orella-San Martin (Gure Pilota B) 18  
**Kimuak 1:** Arbizu-Aramendi (Mendillorri) 7 - Montoya-Garralda (Añamendi) 18  
**Kimuak 2:** Aramendi-Arbizu (Mendillorri) 7 - Fernandez-Martinez (Esteribar) 10  
**Haurrak 1:** Erro-Saraguetta (Añamendi) 25 - Erdozia-Goena (Gure Pilota) 10  
**Haurrak 2:** Abxa-Navarro (Gure Pilota F) 15 - Dominguez-Goena (Gure Pilota D) 18  
**Kadeteak:** Gomez-Igoa (Gure Pilota B) 25 - Urtasun-Agorreta (Añamendi) 15  
**Jubenilak:** Murillo-Lasa (Oberena) 30 - Parot-Antsotegi (Gure Pilota B) 25

## Emakumezkoen Nafarroako Paleta Goma Txapelketako makina bat txapela etorri dira Etxarri Aranatzera

Etxarri Aranatzeko Gure Pilota klubak lan handia egiten du emakumezkoen pala sustatzeko. Eta lan handi horrek uzta bikaina ematen jarraitzen du. Urtero Nafarroako eta gertuko txapelketetan lehiatzen dira gure palistak, eta emaitzak bata bestearen atzetik datoz. Igandean, esaterako, Nafarroako Paleta Goma Txapelketa-



Gure Pilotako finalistek talde argazkia atera zuten. UTZITAKOIA

ko finalak jokatu ziren Iruñeko Labrit pilotalekuan eta finalerako Gure Pilotako makina bat bikote iritsi ziren. Benjaminetan Gure Pilotako Orella eta San Martin izan ziren txapeldunak, bere taldekide Irisarri eta Ijurkora irabazi eta gero. Haurren lehen mailan Erdozia eta Goena txapeldunordeak izan ziren eta haurren bigarren

mailan, aldiz, Dominguez eta Goenak irabazi zuten euren taldekide Atxa eta Navarrori. Kadeteetan Gure Pilotako Gomez eta Igoa nagusitu ziren eta jubenetan Oberenako Murillo eta Irati Lasa etxarriarraren kontra galdu zuten Gure Pilotako Parot eta Antsoetik. Hortaz, txapela gehienak gure-ara etorri dira. Zorionak guztiei!

## Aristorena-Ruiz Nafarroako txapeldunak



## Nafarroako Trinketeko Emakumezkoen Paleta Goma Txapelketa irabazi dute

Nafarroako Trinkete Txapelketako finalak jokatu dira berriki. Emakumezkoen Paleta Goma Txapelketako finalean Yanira Aristorena etxarriarrak Maite Ruiz de Larramendirekin osatu zuen bikoa, eta final handian Etxarri-Andueza izan zituzten arerioak, guztiak ere Oberena klubeko kideak. Aristorena eta Ruiz oso zentratuta atera ziren kanbxara eta hasieratik bukaerara arte dominatu zuten, 30-11 gailendu arte. Nafarroako txapelduna dugu, beraz, Yanira Aristorena.

## Pilota

## Hirurak finalerdietan

## Sailkapena:

1.	Ezkurdia-Zabaleta	9 puntu
2.	Berasaluzeta II-Zubieta	9 puntu
3.	Artola-Albisu	7 puntu
4.	Irujo-Barriola	7 puntu
5.	Oinatz-Aretxabaleta	5 puntu
6.	Retegi Bi-Rezusta	4 puntu
7.	Olaizola II-Beroiz	4 puntu
8.	Xala-Merino II	3 puntu

## Zubietak aurrekoan eta Ezkurdia-Zabaletak jardunaldi honetan lortu dute finalerdietarako txartela

Helburua lortuta. Binakakoan lehiatzen diren hiru pilotari sakandarrek finalerdietarako sailkatzea lortu dute. Aurreko astean lortu zuten txartela Berasaluzek eta Aitor Zubietak, eta ostiralean, aldiz, Ezkurdia eta Zabaletak. Azken hauek, gainera, lidergoa kendu diete Berasaluzeri eta Zubietari. Hasierako ligaxka despeditzeko bi jardunaldien faltan, presiorik gabe jokatu dute baina intentsitate berberarekin, sasoi ez galtzea eta bolada onari eustea oinarrikoa baita finalerdietara bikain heltzeko.

Ostiralean Munitibarren jokatu zuten Ezkurdia eta Zabaletak Retegi Bi eta Rezustaren kontra. Sakandarrek gogor izerditu behar izan zuten, baina partida 18-22 irabaztea eta finalerdietara sailkatzea lortu zuten. Bestalde, Berasaluzek eta Zubietak Xala eta Merino II.a zituzten aurkari Iruñean. Labriten ez zegoen ezer jokoan, baina Xalax sekulako erakustaldia eman zuten eta nahiz eta Berasaluzek eta Zubietak partida irabazteko faboritoak izan, 22-14 gailendu ziren lekuindarra eta errioxarra. "Ongi hasi gara, baina erlaxatu gara eta garesti ordaindu dugu" adierazi zuten Zubietak.

## Zabaleta: "Irabaztera aterako gara"



Asteazkenean pilota aukeraketa egin zuten Ezkurdia, Zabaleta, Artola eta Albisuk Zestoan. Bikote sakandarrak ez du erlaxatu nahi, eta hasierako ligaxka despeditzeko geratzen diren bi partidetan lanean gogor jarraitu nahi dute, finalerdietara joko puntu egokiarekin iristeko. "Lehendabizikoa finalerdietarako sailkapena lortzea zen, hori lortu dugu eta kontentu gaude. Ligaxkako bi partida hauek gure jokoa hobetu eta bikote bezala hobeago aritzeko aprobeztatu dugu. Guk ez dugu begiratzen arerioek zer duten jokoan, gu irabaztera aterako gara, betiko tentsioarekin, gure konfiantzari eusteko eta finalerdietara bolada onarekin heltzeko" nabarmendu zuen Zabaleta. Artola eta Albisuren kontra partida oso gogorra izango dela aurreko astean etxarrendarrak. "Egun txapelketako biko sendoena dira. Biek izugarri jotzen dute eta euren erasoari aurre egiten saiatu beharko gara, Josebak tantoa bukatzeko aukera izan dezan" gaineratu zuten.

## Binakakoa. 13. jardunaldia

**Ezkurdia-Zabaleta / Artola-Albisu** (ostiralean, 22:00etan, Zestoan. ETB1)

**Xala-Merino II / Bengoetxea VI-Untoria** (larunbatean, 17:30ean, Iruñean .laSexta)

**Altuna III-Barriola / Berasaluzeta II-Zubieta** (igandean, 17:00etan, Bilbon. ETB1)

**Urrutikoetxea-Beroiz / Retegi Bi-Rezusta** (astelehenean, 16:30ean, Tolosan)

## Datorrena

Ezkurdia eta Zabaletak Artola eta Albisuk izanen dituzte aurkari gaur Zestoan. Artola eta Albisuk sailkapena dute jokoan, baina irabaztera aterako dira sakandarrak. Berasaluzek eta Zubietak Irujo ordezkatuko duen Altuna III.a eta Barriolaren aurka jokatu dute igandean Bilbon. Irabazi beharrean daude Altuna III.a eta Barriola eta, hortaz, partida erabakiorra da.

*Juanito jatetxea*  
Fernando urkio 11 Arrieta

**GAUR MARTXOAK 13 JUANITO TABERNAK ATEAK IREKIKO DITU**

EGUNEKO MENUA-ASTE BURUKO MENUA  
BOKATAK-PINTXOAK-ROXOLITAK  
ETXEAN EGINDAKO HANBURGESAK...

**GONBIDATUTA ZAUDE!!**

Erabiltzen dituzten

**FLORES S.L.**  
Nafarroako berezko txistorrak izen bat du

*txistor ekologikoa*

Uztuzar industriak - Rlf. - Faxa: 948 460 499 - 41053 211



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 197 070**


Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza [www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)



**Alberto Lacalle Alzate**  
Herriko pilota maitatu eta egindako guztiagatik, mila esker, Alberto.



**Sutegi taldea**



**Jose Joakin Ondarra Erdozia «Kintxo»**  
II. urteurrena  
Bi urte igaro dira joan zinenetik, hala ere, bizirik jarraitzen duzu gure oroimenean.  
Zure isla den irribarra utzi baitzenigun, zure begiko den irribarra.  
**Etxekoak**

**Oroigarriak**



**Guaixe KOMUNIKAZIOA**  
**948 564 275**



GRUPO  
**Funeraria VASCONGADA**  
Ehorzketak  
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

# guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarrian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).  
Argazki bakoitzeko 3€.  
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.  
Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en.

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorian@guaixe.net](mailto:zorian@guaixe.net)

## Erosi / saldu

**SALDU**

**Telebista.** 40 €-ren truke egoera onean dagoen telebista (Philips 37"). Tel 630 49 08 44

## Higiezinak

**ETXEBIZITZAK**

**ERRENTAN EMAN**

**Bi solairutako etxe berriztatua alokatzen da Zuhartzu inguruan.** Lursaila du. Tel. 948 500 101

## Galdutakoak / opatutakoak

**OPATUTAKOAK**

**Giltza sorta opatu zen Altsasun.** marsuaren lehendabiziko astean. Galdu duena joan dadila Altsasuko udaltzainengana.

## IKASTAROKAK

**Olatzagutiko Erburua kiroldegian azken plazak.** Pilates, indoor zikloa, aerodance, mantentze soinketa eta yoga ikastaroetan azken plazak betetzeko daude. Otsaila eta maiatz bitarteko ikastaroak. Informazio gehiago kiroldegian edo 948 56 45 12 telefonoan.

## Lehiaketa

**Haur literaturako Mikel Zarate lehiaketa.** Lezamako udalak eta Elkar argitaletxeak, 6 eta 12 urte bitarteko haurrendako irakurgai berriak sortu eta idazleen lana bultzatzeko asmoz antolatuta dute lehiaketa. Lanak hartzeko azken eguna apirilaren 30 a izanen da. Argibideak deitzaileen web orrietan.

**Erromantzatuauren koloreak.** Nafarroako ekialdeko eskualdeko pintura lehiaketa antolatuta da. Maiatzaren 25era arte aurkeztu daitezke lanak. Informazioa [www.restauranteromanzado.com](http://www.restauranteromanzado.com)

## Oharrek

**Ekintzaileei bultzada.** Nafarroako Gobernuak sustatutako programa baten bidez zortzi enpresa proiektu aukeratu, bultzada programa batean sartu eta laguntza ekonomikoa emanen zaie. Eskerak martxoaren 10era arte. Informazioa [www.cein.es](http://www.cein.es)

**Olazitiko irakurle taldea.** Martxoaren 27an, ostiralean, 21:00etan Sandor Marairen "La mujere justa" liburuz hizketatuko dira.

**Artisten auzoa.** Ekainaren 1ean, eta aste batez, Iruñeko kaleetan artisten lanak ikusgai izanen dira. El Barrio de los Artistas ekimenean parte hartu nahi duenak <https://someselbarriodelosartistas.wordpress.com> blogean bidez izen emate fitxa bete behar du. Apirilaren 27ra arteko epea dago.

**Axio.** Jose Ignacio Floresi buruzko dokumentala egiteko diru-laguntza eman nahi duenak ES04 3035 0112 00 1121055951 kontu korrantean edo [www.karena.eu](http://www.karena.eu) plataformaren bidez egin dezake.

## Iragarkilaburrak

**PREZIOAK egokitu ditugu!!**

Prezioak egokitu ditugu!!

**Dena 3€-tan!!**

**3 astez jarritz eskaintza berezia:**

**8€** (BEZ barne)

**Sail berria TRUKEAK**

Informazio gehiago [www.axioflores.com](http://www.axioflores.com)

**Iruñeko euskarzako telebistaren alde.** Xalao telebista Iruñerrian euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? [www.karena.eu/proiektua/xalao-telebista-irunherria](http://www.karena.eu/proiektua/xalao-telebista-irunherria) edo Iruñeko Karkiri Euskal denda (Xabier Karrika 4) eta Katakarak liburudenda (kale Nagusia 54).

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia azterzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko.** Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpentak kontu korrantean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

**Tartalariendako laguntza.** Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrantean sartu daiteke.

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

**Haurren errietoak errespetatzen dituen eskola libre.** Nahi baduzu, deitu 661- 59 04 20 telefonora.

## Euskonek ekonomikoki laguntzeko kanpaina.

Informazio gehiago: [www.euskonek.com/laguntza](http://www.euskonek.com/laguntza)  
[euskonek@euskonek.com](mailto:euskonek@euskonek.com), 943- 32 22 94.

**3MBk kontu korrantea zabaldu du.** Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

**Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.** Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com) eta [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com)

**Eskuratu zure belexeguaix txartela.** 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net).

**Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.** Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

**Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda.** Sakanako produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarritako edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra

## HERIOTZAK

• **Serafin Egia Quintana,** martxoaren 6an Olaztin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako denda (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozipina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

**Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.** Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makina; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eramane: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

**Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan.** Sakanako Mankomunitateko Immigratio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin berriak ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzeko, asteartean Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo [immigratioa@sakanamank.com](mailto:immigratioa@sakanamank.com) posta elektronikoa.

# kultura >>

**TABERNA ZUZENTZEN:** Zinema zuzendari altsasuarra apirilaren 24ra arte filmatzen ariko da. Lucia Etxeberriaren *El contenido del silencio* liburuaren moldaketa iruditara eramanen du Helena Tabernak.

## Iruzurraz eta lapurretez ari den **antzezlana**

**Gaur, ostirala, 20:00etan eta 22:30ean, martxoaren 14an, larunbatean, 20:00etan eta martxoaren 15ean, igandean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean**

Irurtzungo antzerki tailerra osatzen duten 19 aktoreek lastaila erdialdetik egindakolana asteburuan erakutsiko dute. *La pachanga de los amigos* izenburua du eskainiko duten antzezlana. Angel Sagues zuzendariak jakinarazi digunez, Bertolt Brechten *La opera de los trescentavos* (1928) lanaren Irurtzunerako propio egin duen egokitzapena da. Iruzurra eta lapurretak, bata bestearen atzetik.

Saguesek lehenik eta behin nabarmendu digu Brechtek obra idatzi zuen testuingurua: “20ko hamarkada, burgesia gaueko bizitzan babesten zen, dirdira faltua...” Testuinguru horretan lapur amoral eta antiheroia da obrako protagonista: Mario Navajas. Poli harekin dago maitemindua. Baina bere aitak, Pitxuk, eska-

leen buruak ez du begi onez ikusten erlazioa. Polizia inspektore bat, eskale eta lapur gehiago, emagalduek... horiek dira antzezlanean protagonista. Aktoreek eszenario ondoan bi ateko eraikina duen plaza batean jokatuko dute obra.

Zuzendariak aitortu digunez, irutzundarrak lanerako “oso konprometituak” dira eta haiekin ongi moldatu da tailerrean. Bi antzezle berri behintzat badaude la ere argitu digu, Meghan eta Rodrigo. Irurtzunen aritu ondoren, Valtierren eta Berriozarren emanen dute obra. Eta beste herriren batean ere, ziurrenik.

### Fitxa

**Argiak, antzerkigintza eta zuzendaritza:** Angel Sagues.

**Kartelaren diseinua:** Xabier Unanua.

**Jantziak:** Antzerki tailerra.



### Antzezleak eta jokatzeko dituzten paperak

**Txus Abad**, Jenny, putetxeko burua.

**Pakita Arruabarrena**, eskalea.

**Peio Alzueta**, Pitxu, eskaleen burua.

**Rodrigo Astudillo**, eskalea.

**M<sup>a</sup> Eugenia Barroso**, emagal-

dua.

**Beatriz De Esteban**, Rouni, lapurra.

**María Esparza**, Poliziako sargentua.

**Mariana Espuny**, Luzi, polizia-buruaren alaba.

**Goio Fernández**, Matias, lapurra.

**Olga Gajete**, emagaldua.

**Txeli García**, Celia, Pitxuren emaztea.

**Javier Gonzalez**, apaiza eta txinatarra.

**José Ramón Irure**, Brown edo El Tigre, polizia burua.

**Xabier Loyarte**, Jacobo, lapurra.

**Genma Matxain**, emagaldua.

**Tere Otxoa**, eskalea.

**Meghan Sapp**, lapurra.

**Andoni Ruiz**, Mario Navajas.

**Agurtzane Urteaga**, Poli, Mariorekin maitemindua.



## Bakarrik dagoen emakume baten bizitza, umorez eta nostalgiaz

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

**B**eatriz Carvajal aktoreak Mari Carmenen papera jokatu du bihar Altsasun, Antonio Albert eta Juan Luis Iborrak idatzitako *Avueltas con la vida* komedian. Bizimodu erraza izan ez duen emakumea da Mari Carmen. Familia umilekoa eta gizon krudel batekin ezkondu, bakardadea izan du bidaide, liburuari esker askatasunaren balioa erakusten dioten lau emakumezko heroi deskubritzen dituen arte: Marilyn Monroe, Chavela Vargas, Santa Teresa Jesusena eta Kleopatra. Eta ezusteko lagun horiekin sekreturik barrukoenak kontatuta, Mari Carmenek bere burua maitatzen eta baloratzen ikasiko du.



## Gardenaren bidezko hiri paisaiak

Martxoaren 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

**I**ruñeko artistak biltzen dituen Gardena taldeak hiri paisaiekin erakusketa prestatu du. Iruñeko Gotorlekuan estrainezko erakutsi ondoren Nafarroan barnako ibilbideari ekin dio erakusketak. Taldeko artistek hiri paisaia, bere arkitektura eta paisaia, hartu dute lehengai gisa euren sormen lanerako. Hala, Iortiatik pasatzen direnek olio, akrilikoa, akuarela, eskultura... hainbat teknikarekin sortutako lanak ikusiko dituzte. 25 artista eta 36 artelan guztira.



## Ikasitakoa erakutsiko duten antzerki ikasleak

Larunbatean, 20:00etan eta 20:45ean Ihabarko kontzeju-etxean Arakilgo antzerki tailerreko ikasleak ariko dira

**A**ntzerki gau-jai antolatatu du Arakilgo antzerki tailerak ikastaro akaberarako. Jon Barbarin irakaslearen esanetara bederatzik ihabardar aritu dira interpretazioa lantzen eta ikasten. Azaroan hasi eta otsailera arte astelehenero antzerkigintzan trebatzen aritu dira eta ikasitakoa erakusteko garaia heldu zaie.

Bost antzezlaren eszena laburren binakako interpretazioekin osatu dute biharko antzerki gau-jaiak. Eszena bakoitzaren aurretik Barbarinek hari buruzko argibideak ematen ditu eta ondoren,

hamar bat minutuz, antzezleen txanda izanen da. Haiek Federico Garcia Lorcaen *La Casa de Bernarda Alba*, Jose Sanchis Sinisterraren *!Ay Carmela!*, Alfonso Zurroren *Farsas Maravillosas*, Franca Rame eta Dario Foren *La mujer sola* eta Aristides Vargasen *La edad de la ciruela* antzezlanean laginak eskainiko dituzte.

Antzoki bihurtuko den kontzeju-etxeko kamara beltzean aktoreek aulki batzuk besterik ez dituzte antzezpenean lagun izanen. Jendaurrean izanen dira: Kontxi Astiz, Pello Astiz, Mikel Jimenez, Nerea Uharte, Miren Uharte, Jaione Astiz, Mari Cruz Irurtzun, Lupi Irurtzun eta Imma Jaka.

## Lazkoz eta Lakuntza finalerako txartel bila



Igandean, 17:30ean, Burlatako kultur etxean Nafarroako Bertsolari Txapelketako azken finalaurrekoa jokatu da

**G**ero eta gertuago dago Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala. Hilaren 28an jokatu da Elizondon, pilotalekuan. Orduan oholta gainera igoko diren zortzi bertsolari zein izanen diren jakiteko finalerdiko saio bakarra besterik ez da falta. Hori etzi jokatu dute Burlatan Aritz Saragueta Iturbek, Miel Mari Elozegi Irurtiak, Luzek, Oskar Estanga Ezkurdiak, Saioa Alkaiza Guallarrek, Eneko Lazkoz Martinezek eta Oier Lakuntza Irigoienek. Azken biak dira lehiaketan gelditzen diren bi sakandarrak.

Bi finalerdiko jokatu ondoren, finalerako txartela eskuratu nahi duenak 315 puntu baino gehiago lortu beharko ditu. Mainer Ansa Zugarramurdi izanen da aurkezlea.

# Seco: "nahiko frenetikoak izan da dena"

**Frenetik taldeak ostegunean aurkeztuko du Guillotina diskoa, 23:00etan Altsasuko gaztetxean**

Talde "sortu berria eta kaña emateko prest" dagoena da Frenetik. Laukote batek osatzen du taldea: Eneko Larrañaga (bateria, Txapelpunk eta Norelax ohia), Unai Olalde (gitarra, Eratu), Fonta (ahotsa, Kaotiko eta Kaos Etiliko ohia) eta Xabi Seco (baxua, Hesian ohia). Fontak Kaotiko utzi ondoren musikaren grina barruan zuen eta beste musikari aguraindar batekin hitz egin zuen, Olalde. Zenbait kantu prestatzen hasi ziren eta haiek borobiltzeko Larrañagarekin eta Altsasuko Secorekin jarri ziren harremanetan.

Secok udan utzi zuen Hesian. "Hasiera batean musikarekin atsedean hartzeko asmoa nuen, baina



aukera hau sortuzenean ezin izan nuen ezezkorik eman". Irail hasieran talde berriaren zegoen. Talde eta estilo aldaketa handia. "Nahiko handia, bai. Musika indartsuagoa da, ahotsak melodikoak dira Hesian-en bezala. Hard-core melodiko eta punk rock-a, hor mugituko gara".

Aguraingo lokalean astean bitan entseatzeko dute. "Hasieran kantak prestatzeko kaña pixka bat gehiago sartu genuen, gutxiago orain. Zuzenekoak prestatzen ere ari gara". Altsasuara sartu zenerako kantuak nahiko aurreratuak zeuden eta haiei taldean itxura eta taldearen indarra eman

diete, "talde ukitua".

## Abiadura handiko diskoa

Secok esan digunez, "nahiko frenetikoak izan da dena, hortik dator taldearen izena. Pentsatzen zutena baino azkarragoa joan zen. Ni sartu nintzenetik dena oso azkar izan da. Sei hilabetetan diskoa kalean dugu. Irailean sartu eta azaroan diskoa grabatzen zeuden. "kantuak ikasteko eta azken ukitua emateko denbora justuarekin, egurra emanez".

Altsasuko Itxura estudioetan grabatu zuten Franek eta Fontak. "Emaitza oso ona izan da". Secok esan digunez, diskoa "kanta azkarrak, indartsuak, melodikoak, kantatzeko aukera ematen dutenak" osatzen dute diskoa. Letrei dago kienez, "aldarrikapenekoak, zuzenak". Hamar gaztelaniaz abes-

tuak daude eta bi euskaraz. Guztia *Guillotina* (Maldito Records) izenburua eman diote. Baxu-joleak azaldu duenez, "diskoko letren esanahia biltzen du. Egungo gizarte egoeraren isla dira eta uste dugu gillotinatik batek baino gehiagok pasa beharko lukeela. Herriak nahikoa da esan behar duela uste dugu".

Ilbeltzaren 27an kaleratu zuten diskoa eta "pozik" daude jendearen erantzunarekin. "jendea harrituta dago bat-batean talde berria disko potentearekin... ongi". Orain sortutakoak jendaurrean emateko garaia iritsi zaio Frenetik-i. Aguraingo estreinako kontzertuaren ondoren Altsasun emanen dute bigarrena. "Nik aspaldi ez nuen gaztetxean jotzen, lagunena aurrean eta". Ondoren aurkezpen birak Madril, Logroño, Andoain, Donostia, Bilbo eta Gasteizera eramanez dituzte. "Toki txikietan joko dugu, jendeak Frenetik zuzenean zer den ikus dezan".

# Goseak asetzeko gosariak

**Gosariak diskoa oholtza gainean ikusteko aukera gaur bertan egonen da Iruñeko Zentral kafe antzokian. Korrika kulturalaren baitan antolatutako ekitaldia da eta 21:30ean hasiko da**

Larraitx Amadoz Lazkano

Gose taldekoek abesti baten letra osatzeko proposamena helarazizioten Joseba Sarrionandiari. Idazleak, berriz, ideia berri bat jarri zien mahai gainean, disko oso bat egitearena. Horrela, hamaika abesti sortu dituzte *Gosariak* azkeneko lan honetan. Sarrionandiaren kolaborazioaz aparte, Arrasateko Iñigo Arregi eskultore eta Juan Luis Goikolea margolaria- ren laguntza izan dute. Trikitixa, gitarra eta musika elektronikoak doinu berriak sortu dituzte orain- go honetan.

"Hiru hankatako lan bat izan da" honelaxe azaldu du Jon Zubia- gak, Goseko gitarra lakuntzar- tuak. Hiru belaunaldi elkarlane- an aritu dira, eta lan horren emai- tzak 2014ko lastailaren bukaeran eman zuen fruitua. Kontzertu bere- ziaz prestatu dituzte; oholtza gai- nean ere proposamen ezberdina dakarte. Gosek erabiltzen dituen elementu asko erabiltzen dituzte eszenan, baina kutsu intimistagoa dutela adierazi du gitarra-joleak.

## Doinuak eta gaiak

Doinu ezberdinak erabili dituzte Gose taldekoek, orain arte aurre- ko diskoetan ageri ez direnak, alegia. Itsasoaz beste aldera salto egin dute eta doinu karibetarrak edota habanera bat entzuteko aukera izanen da. Hala, abesti



batzuetan Sarrionandiaren letrei musika egin diete, eta beste kanta batzuen kasuen aldiz, alderantzizko bidea egin dute. Idazleak hainbat gai landu ditu, esaterako, gaur egungo krisia, maitasuna, Euskal Herriko egoera politikoa, baita preso politikoa.

Kutxa baten forma du diskoak, artistek hala nahi izan dute mol- datu *Gosariak*-en forma. Oteizaren

eskolakoak dira Juan Luis Goikolea margolaria eta Iñigo Arregi eskultorea, horregatik, hutsuneari garrantzia eman diote. Bi artistak izan dira diseinu eta arte plastikoaren arduradunak. Hortaz, ilustrazio bereziek osatzen dute guztiz letren esanahia, eta agerian geratzen da honen bidez hiru belaunaldiek elkarlanean sortutako indarra.

## Ballazekin irakurketaz eta idazketaz aritzera

Astelehenean, 18:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean egonen da Jesus Ballaz Zabalza, idazlea eta editorea

Altsasuko Liburutegi Publiko- ak gonbidatuta astelehenean gurean izanen da Jesus Ballaz Zabalza. Ledearra sortzez, Katalunian bizi da gaur egun. Arlo editorialean lan egin du urteetan, eskola testuekin lehenik eta haur eta gazte literaturarekin ondoren. Baina horrekin batera, egile katalanen lanak batelaniara itzuli ditu eta haur eta gazteei zuzendutako 40 bat lan idatzi ditu. Horien artean dago zortzi urte bitarteko haurrei zuzendutako Ibai pertsonaia protagonista duten album ilustratu saila. Ballazen lanak hainbat hizkuntzetara itzuliak izan dira, baita euskarara ere, esaterako: *Lurreraino iristen ez zen jirafa*, *Eguberria iragarri zuen gizonkiloa*, *Pareta zuloa* edo *Etxe bat noraezean*.

## bazterretik

Andoni Igoa Nazabal

### Saenz de Oiza

Gaurkoan ere beste arkitekto nafar baten txanda izango da. Francisco Javier Saenz de Oiza, alegia. Hau Casedan jaio zen 1918an eta 2000 urtean hil zen. Seguraski jende askok izenez ez du ezagutuko baina bere eraikinetara hainbat aldiz gerturatutakoak izango dira. Estatu mailan obra oso garrantzitsuak eginiko arkitektoa izan zen baina bakarrik niretzat esanguratsuenak direnak azalduko ditut

gehiegi ez luzatzeko.

1950. urtean Oñatin dagoen Arantzazuko santutegia diseinatu zuen besteartibat batzuen laguntzaz baliatuta. Adibidez, Jorge Oteizak fatxadako 14 apostoluen frisoa diseinatu zuen. Bertara gerturatzeak asko merezi duela esango nuke, eliza berezia nahiz desberdinabaita. Hormigoizko eraikin modernoa da eta ederra baina oso erakargarria duen zerbait daukala esango nuke. Ingu- rua, gainera, ezin ederragoa da. 1960an, Madrilen etxebizitza nabar-

men batzuk diseinatu zituen. Eraiki- na planta biribila duten hormigoizko dorre itsatsi batzuk osatzen dute eta goiko aldean espazio- ontzi itxurako etxebizitza batzuk gailentzen dira. "Torres blancas" izena ipini zioten 71 metro alturako eraikin honi. Madrilen jarraituz, beste eraikin esanguratsu bat Castellana etorbidean dagoen 107 metroko BBVA dorrea da. 1961. urtean eginiko altzairu eta kristalezko eraikin ederra da. Gertura etorrita, Nafarroako Uniber-

tsitate Publikoan zenbat ikaslek ikusi- siko zuten bertako eraikinak bere- ziaz eta desberdinak zirela. Campus hau Saenz de Oizak 1987an diseina- tutakoa da. Eraikinen berezitasun bat instalakuntzak agerian daudela da. Bukatzeko, bere azken obra aipa- tuko dut, Altsazuko Oteiza museoa. Itaroa atzeko aldean antzeman daitekeen eraikin moderno bat da, eta bertara gerturatu den arkitekto handi baten lana sentituko du Oteizaren obrak ikusten dituen bitartean.



# Lakuntzan abiatuko dira Nafarroako haur eta gaztetxo kantarien jaialdiak



**Larunbatean, 18:30ean, Lakuntzako kultur etxean 90 abeslari ariko dira kantuan**

Sakanatik Lakuntzako (3), Arbizuko (1) eta Olaztiko (1) ikastetxe publikoetako taldeak arituko dira, Lakuntzak musika eskolako (2) beste hirurekin batera

**N**afarroa osoko haur eta gaztetxoek parte hartuko dute aurten antolatutako bost jaialdietan. 26. edizioaren ondoren, aurten ere haur eta gazteek eszenatokira igo eta euskal kantuen interpretatzeko aukera izanen

dute; bai bakarka, bai bikotean edo taldean. A capela edo musikarien laguntzaz, barruan duten artea eskainiko dute oholtzatik abeslari txikiak.

Jaialdiek Nafarroako haur eta gaztetxoaren artean euskararekiko eta kantuarekiko zaletasuna piztea dute helburu. Aldi berean, elkarlana eta beste ikastetxeetako adinkideak direnekin harremanak sustatzea dute helburu. Musikarekin gozatzeko aukera eskaintzea, azken batean. Azken lau urteetan, Nafarroako Gobernuak diru-laguntza emateari utzi zionetik, Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdiak Amaia Dominguez Gonzaloren ekimenagatik egin dute aurrera. Tafalla-

ko musika irakaslea eta Nafarroako Kantuzale Elkartearen kidea da antolakuntzaz arduratzen dena.

## Jaialdien egutegia

Bihar hasi eta martxo hirugarrenetik eta azken igandean izanen dira jaialdiak. Lakuntzaren ondoren, Elizondoko Lur aretoak eta Orkoiengo gizarte etxeak hartuko dituzte jaialdiak, 18:30ean hasita. Azkena, Berriozarko auditorioan izanen da hilaren 29an, 19:00etan.

Guztira 400 bat kantarik eta 40 bat musikari laguntzailek parte hartuko dute jaialdietan. Ahal den neurrian, gehienak maiatzean Burlatako kultur etxean izanen den Nafarroako Haur Kantu Jaialdi Nagusian parte hartuko dute.

## Zinera merke, sari aukerekin

Ostegunetan Altsasuko Iortia kultur guneko zinema emanaldiak 3 euro balio ditu

**I**kuslearen eguna da ostegunero Iortia kultur gunean. Urte hasieratik da hala. Gaurkotasunezko filma 3 euroren truke ikusteko aukera dago. Gainera, zinemaz gozatzen duten ikusleak zozketa batean sartzen dira astero. Altsasuko Dendarien Elkarteak 20 euroko erosketa txartela zozketatu du. Otsailaren 26an Jesus Mari Uriarte Berastegi izan zen saritua. Martxoaren 5ean, berriz, Ana Bel Igoa Gartzandia izan zen. Filmaren emanaldiaren ondoren Alde Zaharreko Tabernen Xurrut elkartearen kontsumitzen dutenek zozketa batean ere sartuko dira.

Ostegun honetan *Into the woods* ikusteko aukera izanen da, ikuslearen egunean. Heldu den astean, berriz, *Siempre Alice*.



# Ipuin kontalaria Ziordiko liburutegian

**Sara Pinto ziordiarrek bere azken liburuaren kontaketa egingen du gaur, 18:30ean Ziordiko liburutegian**

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

**G**aur, Sara Pinto ipuin kontalaria eta idazlea Ziordiko liburutegian izanen da. Bertaraten direnek Pintoren azken liburu *Ate Magikoa*-ren kontaketa aditzeko parada izanen dute. Ziordiarren beraren esanetan, kontaketa berezia izanen da, ipuin kontaketa bat euskaraz egiten duen lehen aldian izango baita. Orain arte ingelesez egin dituzten ipuin irakurketa gehienak (ingeles eskola batean egiten du lan), eta euskaraz horrelako saio bat egin, haren arabera, "erronka berri-tzaile bat" da.

Pintok dioenez, ipuin bat kontatzeak erritmoa, adierazkortasuna eta inprobisazioa eskatzen ditu. Dena den, gaur nahi beste ezingo duela inprobisatu aitortu du: "Euskara duela gutxi ikasi dut, eta gauegun dudun mailak ez ditasko inprobisatzen uzten". Edonola ere, esan beharrekoa ondo entseatzu

gero kontaketa ongi aterako zaio- la uste du, eta ziur dago pasarte batzuetan zertxobait inprobisatu eta parte hartzea sustatuta ume-ek primeran pasako dutela.

Kontaktaren ardatza izanen den *Ate Magikoa* ziordiarrek idatzirik hirugarren liburu da (publikatutakoen artean bigarrena). Pintoren arabera, liburu hau mundu magiko batera sartzeko ate bat da, mundu horretan irudimena erabilia edozein gauza egin dezakezularik. Horrela, kontaktunaren helburu nagusia umeen irudimena sustatzea dela dio. Hasiere batean erdaraz idatzizuen, *La puerta magica* izenburupean, baina ondoren, Sakanan euskaraz idatzirik ipuinen lehiaketa bat zegoela ikusita, euskarara itzultzea erabaki zuen.

## "Euskara hizkuntza polit eta interesgarria iruditzen zait"

Sara Pinto izatez Valladolideko da, baina duela urte batzuk Ziordira etorri zen. Hizkuntzak dira bere zaletasun handienetako bat, eta euskara ezagutu zuelarik,



berau ikasten hastea erabaki zuen. Horrela, bi urte eman zituen AEKn euskara ikasten. Pintoren esanetan, ez dakien jendea hizkuntza hau ikastera animatu beharko litzateke, bere iritziz hizkuntza polit, interesgarri eta historia handikoa baita.

Euskara ikastearen zailtasun mailari dagokionez, oinarriko

kontzeptuak nahiko erraz barnerratu zituela dio, lehenago beste hizkuntza batzuk ikasi izanak asko lagundu diola azpimarratuz (besteak beste, ingelera eta alemana dakizki): "Nire ustez, euskarak ezaugarri oso bereziak ditu, baina alemanarekiko zenbait antzekotasun ditu. Horri esker, zenbait aspektu errazago ikasi ahal izan ditut".



## Nonerabili

### XALOK ESTETIKA, KIROL ETA NUTRIZIO ZENTROA

**ETXARRI ARANATZ**  
%5eko deskontua, bonu, gimnasio eta jardueretan izan ezik.

### NUEVA IMAGEN

**ALTSASU**

%10eko deskontua

### ARRUAZUKO OSTATUA

**ARRUAZU**

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

### LOGURE

**ALTSASU**

%20ko deskontua (eskaintza berezietan izan ezik).

### ML MODA

**ALTSASU**

100 €tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

### NEREA ILEAPAINDEGIA

**LAKUNTZA**

Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

### MARTXUETA

**IRURTZUN**

%5eko deskontua irakurketako liburuetan.

### MENDILORE

**BAKAIKU**

30 €ko erosketarengatik, landarea doan, %5eko deskontua lorontzietan.

### LEKU ONA OSTATUA

**ALTSASU**

Eguneko menuan, kafea doan. Bestelako menuetan, %10eko deskontua.

### REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

**ALTSASU**

%5eko deskontua osagarrietan.

www.guaixe.net-en zerrrenda osoa ikusgai



## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 75%	euria: 93%	euria: 75%	euria: 20%	euria: 53%	euria: 85%	euria: 60%
Min: 6 Max: 7	Min: 0 Max: 5	Min: 2 Max: 6	Min: 1 Max: 10	Min: 2 Max: 9	Min: 3 Max: 9	Min: 5 Max: 11

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	23	-1	0
Etxarri A.	24.1	-3	0.1
Altsasu	22	-2	0
Aralar	15.8	-5.1	1.8
Urbasa	19.5	-3.5	0

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
13	20	27	4

**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Marsuko

## bazkide zozketa

MARSUKO SARIAK:

1. SARIA: Ekainberri museorako 2 sarrera. Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Irrien lagunak aldizkaria.
- 2.3.4.SARIAK: Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturaleren lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Irrien lagunak aldizkaria.

>> 11

## galdera

Elena Andueza

Bisila GKE-ko kidea

Testua: Larraitz Amadoz Lazkano



## SAKANAN, MARTXOAK 27-28 GAUA

# BELEIXE IRRATIA

Lekukoa eta zure arteko distantzia laburrena

Korrika zuzenean goizaldeko 2etatik 7:30etara

Entzun! **beleixe** 107.3 FM

Online: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

1. Zergatik erabaki zenuen Bisila erakundearen parte hartzea?
 

Gure egoera kontuan harturik oso zortedunak gara, ia denetarik dugu. Ekarpenean egin nahi nuen, zer-bait ematea zen nire asmoa nahiz eta txikia izan. Ni baino baldintza txarragoetan bizi den jendea dago eta beraiei laguntzea garrantzitsua iruditzen zait.
2. Nola iritsi zinen Bisilara?
 

Egunkariaren bidez izan nuen Bisila Gobernuz Kanpoko Erakundearen berri. Umeen harrera egiteko orduan, bai udako egonaldirako, baita ikasketetarako, edota osasun zerbitzuetarako, beharrezkoa da erakunde baten barruan egotea izapide ugari egin behar direlako. Hemen, paper asko bete behar ditugu eta haurrak etortzen diren herrialdean, Ekuatore Ginean ere bai. Norberak lan hau bakarrik hartzen badu, askoz ere zailagoa da.
3. Zein eremutan egiten du lan Bisilak?
 

Nafarroan. Nafarroako herrietara Bisilarekin etortzen diren haurrak Ekuatore Gineakoak dira.
4. Noiz hasi zenuen esperientzia?
 

2011n lehen aldiz etorri zen haurra guregana. Urtez urte egoera desberdina izan dugu, batzuetan legeak eta arauak aldatu egiten direlako. Batzuetan zailtasunak izan ditugu dokumentazioarekin, baldintzak ez direlako berdinak izan. 6-8 urtetik gorako umeak etor daitezke, haur hauek beren familiak haien herrialdean dituzte, eta kontrol handia dago prozesuan.
5. Umeen harrera egiteko hainbat aukera daude, ezta?
 

Orokorrean udako egonaldiak izaten dira. Denboraldi bat pasatzen dute udaran familia baten konpainian eta gero beren herrialdera bueltatzen dira. Bestalde, ume batzuek ikasketak egonaldiak egiten dituzte. Ikasturteak irauten duen denbora Nafarroan egoten dira, eta oporretan Ekuatoriar Gineara itzultzen dira familia-erengana. Azkenik osasun zerbitzua behar duten kasuak dago. Ebakuntza ala tratamendu bat jasotzera etortzen badira, prozesu hori bukatutakoan ere beren etxera itzultzen dira.

6. Sakanara zenbat ume datoz?
 

Bisilarekin Sakana mailan bakarrik nik ekartzen dut haur bat, Ekuatoriar Gineatik. Baina bada-kigu Saharatik ala Txernobiletik datozen haurren harrera egiten dela, beste erakundeekin.
7. Aldaketa handia ikusten al duzu haurrengan hemen egonaldia pasa eta gero?
 

Zerbait argi utzi nahi dut, ume hauek osopozik etortzen dira, baina itzuli ere bai. Gu haien udako familia gara, baina beraien familia erreala Ginean dago. Maila emozionalean gurekin egoten den umea oso maitakorra da. Etortzen denean, pediatretan ibiltzen gara osasun zerbitzua behar duelako batzuetan. Gaizki elikatuta dator eta horren ondorioz osasun arazoak eduki ditzake. Ginean soilik egunean behin jaten dute, beraz hona iristen direnean ahalik eta hobekien elikatzen saiatzen gara. Han ez dute haragirik, barazkirik, ala frutarik eta horrelako elikagaiak jaten dituztenean asko eskertzen dute.

8. Zer baldintzatan bizi dira Ekuatoriar Ginean?
 

Haur guztiak Malabo eta Bata hirietatik etortzen dira. Gehienak auzuneetan bizi dira. Guraso askok lanordu luzeak dituzte eta haurrek denbora dezente bakarrik pasatzen dute. Denbora asko kalean pasatzen dute eta haur bakoitzak ahal duen moduan aurrera ateratzen du bizitza.
9. Nola funtzionatzen du Bisilak?
 

Erakundeak umeei zuzendutako laguntza kudeatzen du. Malabo eta Bata hiriburuetan haurren egoeraz arduratzen den pertsona bat dago eta hara iristen den laguntza arduradun horrek banatzen du. Han dagoen pertsonak ume bakoitzaren beharrak bere begiekin ikusten ditu eta laguntzaren banaketa hori bere esku geratzen da. Hemen, haurren harreraz gain, bazkide egin daiteke, eta diru kopuru batekin ezinbesteko elikagaiak ziurtatzen zaizkie Ginean. Laguntza mota asko daude.
10. Nola sentitu zara esperientzia honekin?
 

Oso ongi. Guk asko ematen digu haurrari, maitasuna, arreta. Bestetik, ume batek asko ematen dizu, bete egiten zaitu. Bere jarra-ikustea, bere portaera ekarpen handia da guretzat, zoriontasun handia ematen digu. Guk egindako lanak fuituak ematen dituela ikusten dugu; egia esan zaila da sentimentu hau azaltzea.
11. Nola jarri gaitzke harremanetan Bisilarekin?
 

65356110 eta 69665534 telefonoetan eta [asociacionbisila@hotmail.com](mailto:asociacionbisila@hotmail.com) epostan (Begoña).